



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

TORTURA PREBENITZEKO ETA IKERTZEKO METODOEN ANALISIA KRIMINOLOGIAREN IKUSPUNTUTIK. HONEN ERREALITATEA ETA KRIMINOLOGOAREN FUNTZIOA

KRIMINOLOGIAKO GRADU AMAIERAKO LANA
2014/2015



Egilea: RAQUEL PÉREZ MÉNDEZ

Lanaren zuzendariak: JOSEBA EZEIZA RAMOS

eta

MIREN AZKARATE VILLAR

“Nazioarteko zuzenbidearen jarrera argi dago. Ez dago ezer tortura eta tratu txarrak bidezkotzen dituenik. Zibilen kontrako atentatu terroristak modu kementsuan defendatzen diren gisa berean, torturaren bidez terrorismoa aurkatu daitekeelako baieztapenak egiten dituzten gobernuen kontra jarri behar gara. Baieztapen horiek engainagarriak, arriskutsuak eta guztiz okerrak dira: ezinezkoa da sute bat gasolinarekin itzaltzea”.

Irene Khan

Eskertza

Nahiz eta eskertzaren atala atarikoa izan, kasu honetan ez da inola ere kortesia hutsekoa. Izan ere, ezinezkoa izango zitzaidan lan hau aurrera eraman izana bidean laguntza eskaini didaten pertsona guztiak gabe. Lehendabizi eskerrak eman nahi dizkiet Gradu Amaierako Lan honen bi tutoreei lana bideratzen emandako laguntzagatik. Zaila da, hainbeste ikaslen tutoreak izanda, guztiei laguntza hobereana eskaintzea, eta eskerrak eman behar dizkiet momentu oro bertan egoteagatik aholkuak emateko prest.

Bigarrenik, eskerrak eman nahi dizkiot, halaber, Kriminologiako graduan zehar irakasle eta practicumean instruktore izan dudana Francisco Etxeberria irakasleari. Oso zaila izango zen bere laguntzarik gabe, hain interesgarria iruditu zaidan eta etorkizunean nire bizimoduaren parte izatea gustatuko litzaidakeen Giza Eskubideen urraketan arloan ikertu izana. Eskerrak eman behar dizkiot bere konfiantza emateagatik eta edozein momentutan bere laguntza emateko prest egoteagatik.

Ezin ditut ahaztu Laura Pego, Eva García eta Leyre Padilla ere hilabete hauetan lanaren inguruan aholkuak emateagatik eta Tortura Ikerketa Proiektuan sakontzen laguntzeagatik. Oso erraza eta baliotsua izan da haiekin lan egitea hain gogorra den gaiaren inguruan.

Baina, eskertza berezia egin nahi diot neure familiari, lau urte hauetan nire ondoan egoteagatik, ikasketekin aurrera jarraitzeko gogoak indartuz. Beraien indarrari eta pazientziari esker posiblea izan zait lau urte hauetan zehar hasieran neuzkan gogoekin aritzea.

Laburpena

Lan honen helburua, gizartean torturari aurre egiteko dauden mekanismoak eta delitu honen errealitatea ikuspegi kriminologikotik aztertzea da. Hiru zatitan banatu da: alde batetik, torturaren oinarriko ingurumariak. Bertan torturaren historia, kontzeptua eta lege-teistuingurua aztertzen dira delitu honi buruzko ideia orokorra sortzeko. Beste alde batetik, kriminologiaren teorien bidez torturaren delitua azaltzen da, honen zergatia eta prebentzio metodoak ezartzeko helburuarekin. Azkenik, torturaren errealitatearen azterketa burutu da, “Tortura Ikerketa Proiektua (1960-2013)” lana azalduz. Proiektu horretan oinarrituta, kriminologoak giza eskubide bortxaketan ikerketetan ere burutzen duten funtzioa aztertu da. Posible izan da ondorioztatzea tortura gaur egun ematen jarraitzen den delitu bat dela eta, nahiz eta, prebentziorako lege ugari egon, gizartearen parte-hartzea beharrezkoa dela; izan ere, tortura gizarteak sortzen duen delitua da.

Hitz gakoak: *tortura, ikerketa, prebentzioa, kriminologia, tratu txarrak.*

Resumen

El objetivo del presente trabajo es analizar los mecanismos existentes contra la tortura y la realidad de este delito desde una perspectiva criminológica. Está dividido en tres partes: por un lado, las cuestiones fundamentales sobre la tortura. Aquí se analizan la historia, el concepto y el contexto legal, con el objetivo de establecer una idea general sobre este delito. Por otro lado, se realiza un análisis de la tortura desde las teorías criminológicas con el objetivo de determinar por qué ocurre y qué métodos de prevención existen. Por último, se realiza un análisis sobre la realidad de la tortura, explicando el trabajo “Proyecto Investigación Tortura (1960-2013)”. Se analiza también mediante ese proyecto el papel del criminólogo en las investigaciones sobre violaciones de derechos humanos. Se puede concluir que la tortura es un delito que permanece hoy en día, y aunque existan leyes para su prevención, la participación de la población es necesaria. Al fin y al cabo, la tortura es un delito creado por la sociedad.

Palabras clave: *tortura, investigación, prevención, criminología, malos tratos.*

Abstract

The purpose of this thesis is to analyze the existing mechanism against the torture as well as the reality of this type of crime from a criminological perspective. It is divided in three parts: on the one hand, the fundamental issues about the torture. The history, the concept and the legal context are analyzed on this part, with the objective of establishing a general idea of this crime. On the other hand, an analysis of the torture from the criminological theories is done with the purpose of determining why this happened and the prevention methods that exist for it. Finally, an analysis of the reality of torture is developed, explaining the work “Torture Investigation Project (1960-2013)”. By this work, it is also analyzed the role of the criminologist on the investigations of human rights violations. It is concluded that nowadays the torture is an existent crime, and even if there are laws for its prevention, the participation of the society is necessary. After all, the torture is a crime created by the society.

Keywords: *torture, research, prevention, criminology, mistreatment.*

Aurkibidea

| | |
|---|-----------|
| 1. Sarrera..... | 11.orria. |
| 2. Torturaren oinarritzko ingurumariak..... | 13.orria. |
| 2.1. Tortura historian zehar..... | 13.orria. |
| 2.1.a. XII. mendetik XVIII. mendera | 14.orria. |
| 2.1.b. XVIII. mendetik XX. mendera | 18.orria. |
| 2.2. Oinarri kontzeptuala | 22.orria. |
| 2.2.a. Torturaren definizioa | 22.orria. |
| 2.2.b. Tortura eta tratu txarren arteko bereizketa | 28.orria. |
| 2.3. Lege-testuingurua..... | 31.orria. |
| 2.3.a. Maila unibertsaleko lege-testuingurua..... | 31.orria. |
| 2.3.b. Europako lege-testuingurua..... | 32.orria. |
| 2.3.c. Espainiar Estatuaren lege-testuingurua..... | 33.orria. |
| 3. Torturaren azalpena kriminologiaren teorien ikuspuntutik..... | 38.orria. |
| 3.1. Eskola klasikoa | 39.orria. |
| 3.2. Eskola positibista | 41.orria. |
| 3.3. Elkartze diferentziala. | 43.orria. |
| 3.4. Teoria funtzionalak. | 44.orria. |
| 3.5. Kontrolaren teoriak. | 46.orria. |
| 3.6. Gatazken teoriak. | 47.orria. |
| 3.7. Teoria kriminologikoen aplikazioa tortura delituan..... | 48.orria. |
| 4. Tortura Ikerketa Proiektua 1960-2013 | 51.orria. |
| 4.1. Torturen Ikerketa Proiektua 1960-2013 | 52.orria. |
| 4.1.a. Proiektuaren justifikazioa. | 53.orria. |
| 4.1.b. Aztertutako epealdia | 54.orria. |
| 4.1.c. Lan taldearen inguruko datuak. | 56.orria. |
| 4.1.d. Ikerketaren metodologia | 57.orria. |
| 4.1.d.1.- Helburua. | 57.orria. |
| 4.1.d.2.- Ikerketaren lagina. | 57.orria. |
| 4.1.d.3.- Ikerketaren gorputza. | 57.orria. |
| 4.1.d.4.- Iturriak eta datuak. | 58.orria. |
| 4.1.d.5.- Istanbulen protokoloan oinarritutako adituen protokoloa..... | 60.orria. |
| 4.1.d.6.- Tortura ikerketa proiektuaren datu basea. | 63.orria. |
| 4.1.d.7.- Prozesua..... | 64.orria. |
| 4.1.e. Tortura Ikerketa Proiektuaren emaitzen inguruketa..... | 68.orria. |
| 4.2. Kriminologoaren funtzioak | 77.orria. |
| 5. Ondorioak. | 81.orria. |
| 6. Bibliografia. | 85.orria. |

| | |
|--|------------|
| 7. Eranskinak | 88.orria. |
| 7.1. eranskina: Istanbuleko protokoloan oinarritutako adituen txostena..... | 88.or. |
| 7.2. eranskina: Tortura Ikerketa Proiektuaren Datu Basea..... | 93.orria. |
| 7.3. eranskina: biktimei bidaltzen zaien gutuneko dokumentuak..... | 100.orria. |
| 7.4. eranskina: torturaren inguruko inkesta..... | 105.orria. |
| 7.5. eranskina: Tortura Ikerketa Proiektuaren taldekide batzuei egindako galdera..... | 106.orria. |

1. Sarrera:

Lan honetan torturaren delituari buruz arituko gara; zalantzarik gabe, giza eskubiden urraketa larrienetako bat. Tortura ez da berria gizartean. Historia osoan zehar torturaren presentzia adierazi dute hainbat autore eta lan ugariak, aurrerago ikusiko dugun bezala, eta denbora aurrera joan ahala honen erabileraren helburua aldatuz joan da.

Gai hau aukeratzearen arrazoia Kriminologia graduko praktikak Tortura Ikerketa Proiektuan burutu izanarena izan da. Kriminologiako graduan hainbat arloetako irakasgaiak ematen dira eta ondorioz praktiketan jarduteko eremu zabala daukate ikasleek. Horietako bat Giza Eskubideen urraketak dira. Eremu honetan auzitegiko zientziak eta oinarrizko eskubideen urraketak biltzen dira, historian zehar gertatutako egitate zigorgarri batzuei erantzuna emateko eta biktimen ohorearen errespetua bultzatzeko. Praktika hauen ondorioz eskubideen urraketan inguruan sortutako interesa handiagotu egin zen eta gradu amaierako lanean torturaren delitua ikuspegi kriminologiko batetik lantzea erabaki zen.

Torturari buruzko lehenengo ezagutzak zahartzaroko Egiptotik datoz. Grima Lizandra (1998, 25 or.) autorearen arabera, garai horretako margolan batzuetan ikusi daiteke nola zerga bilatzaileek nekazarien oin-zolak kolpatzen zituzten ezkutatutako ale bildumak non zeuden esatera behartzeko. Persiar kulturean ere tortura presoei ezarritako zigor modura erabiltzen zen, Hitita, Kartageniense eta Feniziarren artean zeukan erabilera berdina (Gudín Rodríguez-Magariños, 2009, 25 or.).

Beraz, tortura delitu klasiko bat da. Zoritxarrez, gure gizartean finkatuta jarraitzen duen delitu bat, eta arrazoi horrengatik ere ikertzen jarraitu behar den gai garrantzitsu bat. Zuzenbideko estatu demokratiko guztien sistema publikoaren betebeharra da tratu txarren eta torturaren prebentzioa eta ikerketa bultzatzea, Konstituzioan adierazten den pertsona guztien duintasun eta osotasun fisiko eta moralaren babesaren bermea errespetatzeko. Hori lortzeko itun internazional eta lege ugari onartu izan dira (Zúñiga Rodríguez, 2007, 875 or.).

Burututako hainbat ikerketari esker gauza asko dakizkigu torturari buruz: zein metodo erabiltzen diren, zein pertsona diren ahulagoak, zeinek dauzkate aukera gehiago tortura aurrera eramateko... Baina, hala ere, eta nahiz eta lege ugari egon torturaren aurka, lan honetan zehar ikusi ahalko den bezala, kontrolatu ezin daitekeen portaera bat izaten jarraitzen du. XXI. mendean torturak indarrean jarraitzen du, eta antzinaroan ez

bezala, askoz zientifikoagoa eta arrastorik gabekoa bihurtu da (Peters, 1985, 225 or.). Izan ere, egunero telebistan agertzen diren albisteetan eskubide urraketak ikusten dira, gizartearen parte dira. Beraz, tortura ezin da kontrolatu lege soilak aplikatuz edo hura identifikatzeko pauso psikologiko edo medikuak ezarriz. Torturaren delituak ere perspektiba soziala dauka, historian zehar bizirautea ahalbidetu diona.

Azkeneko atal honetan sartu daiteke kriminologoaren lana, aipatutako arlo guztien inguruko jakintzak izanik, hauek torturaren zergatia azaltzen lagunduko zutelako, eta agian puzzlearen pieza guztiak izanda hain ulertezina den portaera bat abolitzea posible izan daitekeela pentsatzen hasi ahalko ginateke.

Lan honen gorputza hiru zatitan banatuta dago. Alde batetik, torturaren ingurumariak aztertuko dira. Atal honetan torturaren historia, oinarri kontzeptuala eta lege-testuingurua ikusi ahal izango da, torturaren egoerari buruzko ideia orokorra sortzeko eta delitu honek denboran izan dituen gorabeherak ezagutzeko. Beraz, lehenengo zatian torturaren hiru ingurumari aztertuko dira. Torturaren historia XII. mendetik XX. mendera azalduko da, delitu hau historian zehar berragertzea sortu zuten egoerak aztertuz. Oinarri kontzeptualean, berriz, gaur egun torturari ematen zaion definizioari buruz hitz egingo da, honen ezaugarri nagusiak gailenduz eta tratu txarren arteko bereizketa ezarriz. Azkenik, lehenengo puntuarekin amaitzeko, tortura debekatzen eta prebenitzen duten legeen testu inguraketa egingo da, maila unibertsaletik hasiz, Espainiar Estatuko legediarekin amaitzeko.

Beste alde batetik, torturaren azalpena teoria kriminologikoen arabera egingo da. Horretarako sei eskolen delituaren deskribapena eta hauek delinkuentzia orokorra prebenitzeko ematen dituzten gomendioak landu dira. Behin teoriak landuta, torturaren delituari aplikatuko zaizkio, fenomeno honek denboran izan duen iraupenaren zergatiak ulertzen saiatzeko eta harekin amaitzeko eta prebenitzeko neurri lagungarrienak proposatuz. Kutsu soziologikoa duten teoriak aukeratu dira gehienak, kontuan izanda gizartearen kultura eta ohiturak torturaren erabilpenean eta prebentzioan duten eragina.

Azkenik, praktiketara parte hartutako Tortura Ikerketa Proiektua (1969-2013) lana azalduko da. Ikerketa honen bidez torturak gaur egungo gizartean duen presentzia azaltzen saiatuko da, kontuan izanda delitu mota hau ukatzeko dagoen joera. Ikusi ahal izango den bezala, tortura salaketa ugari aurkitzen dira, baina normalean ez dira gorputz polizialen kondena batean amaitzen, baizik eta frogak ez aurkitzeagatik largespenean amaitzen dira (Zúñiga Rodríguez, 2007, 898 or.). Azkeneko atal honetan proiektuaren justifikazioa, erabilitako metodologia, kontsultatutako iturriak, helburuak...aztertuko

dira, tortura ikertzeko gaur egun dagoen beharra adieraziz. Atal honen bigarren puntuan, berriz, giza eskubideen bortxaketan eta urraketan kriminologoek duten zeregina aztertuko da, betiere, practicumean izandako esperientziaren arabera. Orokorrean hiru funtzio beteko dituzte: alde batetik, delituaren azalpena ematea, honen zergatiak ezarriz; beste aldetik, delituaren prebentziorako mekanismo egokiak bultzatzea, bai formalak zein informalak; azkenik, delitugilea eta biktimaren gaineko esku-hartze programan laguntza eskaini ahalko zuten (García-Pablos de Molina, 1989, 84-95 orr.).

Beraz, lan honen helburu nagusia gizartean torturari aurre egiteko dauden mekanismoak eta delitu honen errealitatea ikuspegi kriminologikotik aztertzea izango da. Hau lortzeko historian zehar eta legeetan torturari emandako trataera berrikusi eta kriminologiaren teorien aldetik delitu honi eman ahal zaion azalpena eta prebentzio motak aztertuko dira. Errealitatea aztertzeko, berriz, kriminologiako graduan burututako praktiketan parte hartutako Torturaren ikerketa proiektua aztertuko da, ikusi ahal izango den bezala, gaur egun ere delitu hau izaten jarraitzen dela adierazteko.

2. Torturaren ingurumariak

Atal honetan Torturaren inguruko ingurumari garrantzitsuak ikusi ahal izango dira. Ingurumari horiek hiru taldetan banatzen dira: Tortura historian zehar, oinarri kontzeptuala eta lege testu-inguraketa. Atal honen bidez torturaren inguruabarrak ezagutzea ahalbidetuko du, ondorengo ataletan honen analisi kriminologikoa egiteko eta gaur egun gure gizartean duen presentzia aztertzeko.

2.1. Tortura historian zehar

Antzinaroko Greziar garaian biztanleen eta ez biztanleen arteko bereizketa egiten zen epaiketetan. Hiritarrak ohorea eta duintasuna zeukaten pertsona askeak ziren, eta arazoak egonez gero testigantza ematen zuten, baina ezin ziren torturatuak izan. Garai honetan ohorea zuen garrantziaren ondorioz, frogak bi multzotan banatzen ziren: alde batetik froga naturalak, hiritarren hitzetatik lortu ahal zena; eta beste aldetik, indarkeriaz lortutako frogak, ohorea ez zeukaten edo hiritartzat hartuak ez ziren pertsonetatik lortzen zena, hau da, esklaboetatik, atzerritarretatik, lanbide lotsagarriak

zituztenetatik eta haien ohorea publikoki kaltetua zutenetatik (Gudín Rodríguez-Magariños, 2009, 26 or.).

Ikusi daitekeen bezala ohoreak garrantzia handia ematen zion pertsonaren hitzari, eta hau nahikoa zen frogak aurkezteko. Berriz, hiritartasun estatusa ez zeukaten pertsonak ezin zituzten frogak aurkeztu greziarren arabera, haien hitzak ohorea ez zeukalako. Beraz, babes prozesala mantentzeko eta pertsona hauen hitza hiritar ohoredunarena bezain fidagarria izateko, tortura erabiltzen zen (Peters, 1985, 28 or.).

Erromatarren lege zaharrak ere greziarrenak bezala, hasieran soilik morroien tortura baimendu zuen delitu bat burutzen zutenean, eta aurrerago lekukoak ere torturatuak izan zitezkeen (Peters, 1985, 34-35 orr.). IV. Menderako berriz, pertsona askeen eta esklaboen arteko desberdintasunen abantailak guztiz desagertu ziren eta hainbat delituengatik gizon askeak torturatuak izan zitezkeen. Edward Petersen (1985, 54 or.) hitzetan, “La aparición de una clase de magistrados burocráticos, que ya no eran los sabios juristas de los siglos II y III, probablemente hizo la aplicación de la tortura más rutinaria y menos meditada”.

Lege erromatarrek mendebaldeko tradizioen jurisprudentzia *docta* gehiena osatu zuenez, honen torturari buruzko doktrina eragin handia izan zuen torturaren XIII. eta XX. Mendeko berragertzeetan (Peters, 1985, 34 or.) hurrengo ataletan ikusiko den bezala.

2.1.a. XII. mendetik XVIII. mendera

Lehen aipatu den bezala, lege erromatarrek eragin handia izan zuten XII. mendetik aurrera, eta gaur egun ere hauen kutsu bat aurkitu daiteke gure sistema juridikoan.

XII. mendean Europan aldaketa juridiko handia izan zen, jurisprudentzia penalean iraultza sortu eta XVIII. mendearen amaiera arte iraun zuena. Honen arrazoiak aurreko mendeetan existitutako zuzenbidearen eraldaketa eta Europa guztian aplikagarria izan zitezkeen zuzenbide eredu baten beharra izan ziren (Peters, 1985, 63 or.).

Iraultza honen ondorio garrantzitsuenetariko bat akusazio prozesuaren desplazamendua izan zen. Honen ordeztu, prozesu inkisitoriala aplikatu zen (Peters, 1985, 64 or.). Greziar eta erromatar garaian nahikoa zen pertsona askeak delitua burutu ez izanaren aitorpena ematea zigorrrik gabe geratzeko, baina inkisizio prozesuarekin frogan

beharra zegoen eta hauek aurkitzeko instrumentuen faltaren ondorioz, aitorpena pixkanaka frogen hierarkiaren gailurrean kokatu zen (Gudín Rodríguez-Magariños, 2009, 31-32 orr.).

Aitorpenari eman zitzaion garrantziaren ondorioz garai horretako juristak deklarazioari *regina probatium* edo “frogen erreginarean” izena ematen hasi ziren. Izan ere, epaiaren inguruan zeuden frogei buruzko zalantzak argitzeko erabilia izan zen aitorpena eta honen arabera erabakitzen zen sententzia (Peters, 1985, 69 or.). Peters (1985, 65 or.) autorearen arabera, Erromatar eta greziar garaian ez bezala, non tortura pertsonaren askatasun eta estatusaren arabera aplikatzen zen, praktika hau sistema juridikoan berragertzearen arrazoia prozesu juridikoan aitorpenak lortu zuen garrantzia izan zen. Hau da, greziar eta erromatar garaian tortura askatasunik ez zeukaten pertsonetan aplikatzen zen, eta garai modernoan berriz, torturaren erabilera aitorpenari eman zitzaion garrantziaren ondorioz erabilia izan zen.

Tortura sistema juridikoaren instituzio prozesala bihurtzerakoan, bere esanahiaren eta mugen erregulazioa gertatzen da (Grima Lizandra, 1998, 28 or.). Modu honetan, torturaren bidez aitortutakoaren berrespena eskatzen da, eta deklarazioa ez berretsiz gero, ez erruduntzat jo beharko zen, burututako aitorpena torturaren ondorioa zelako eta ez errealtatean gertatutakoa (Gudín Rodríguez-Magariños, 2009, 33 or.).

Aitorpenaren berrespen hau 1256-1265 urteetan zehar idatzitako Zazpi partidetan aurkitu daiteke. Hauek Gaztelako koroak Alfonso X. agintaldian sortutako gorputz normatiboak ziren, erresuman oreka juridikoa ezartzearen helburua zutena. Hasiera batean Legeen liburuaren izena hartu zuen, baina bere sailkapena ikusita XIV. Mendean zazpi partiden izena eman zitzaion. Modu honetan jasotzen da zazpigarren partidaren XXX. Tituluan torturaren bidez aitortutakoaren berrespena:

“Luego que los presos fueren metidos a tormento [...], y hubieren dicho lo que supieren sobre aquello por que los atormentaron y hubieren escrito sus dichos, los deben regresar a la prisión donde solían estar antes que los atormentasen, y aunque alguno de ellos conociese aquel delito sobre que lo pusieron a tormento, no le debe por lo tanto el juzgador mandar ajusticiar luego; pero si lo debe regresar a la prisión hasta otro día, y hacer que acudan otro día ante él [...]. Y si perseverase en aquello que antes dijo y lo conociere, lo debe entonces juzgar y mandar que le hagan justicia que el derecho manda. Pero si antes que le hagan justicia hallare el juzgador en verdad, que lo que conoció no era así pero que lo dijo por miedo a las heridas o con despecho que tenía porque lo serían o por locura o por otra razón semeiante a estas, lo debe librar” (Las siete partidas, 1988).

Beraz, berrespenarekin torturaren ondorioz gezurra ez esatea bilatzen zen, torturatuek beldurragatik edo minaren ondorioz errealitatean ez burututako ekintza bat onartu zezaketelako. Seneca filosofoak argi uzten zuen adierazten zuenean “*etiam innocentes cogit mentiri*”, hau da, minak errugabea ere gezurra esatera behartzen du (Seneca, Gudín Rodríguez-Magariños erreferentziatua, 2009, 35 or.)

Letranen IV. Kontzilioaren ondoren, sistema prozesala aitortpena lortzera bideratua egon zen, damutasuna eta torturaren bidez. Zalantzez beteriko prozedura batean egia absolutua lortzeko aitortpena beharrezkoa zen, eta edozein instrumentu eta metodo baliagarriak ziren atxilotuari bere erruduntasunaren aitortpena emanarazi baldin bazioten (Gudín Rodríguez-Magariños, 2009, 34 or.). Izan ere, erruduntasuna ezagutzeko ez zegoen aitortpena baino modu egokiagorik. Foucault autorearen (1988, 44 or.) hitzetan: “el solo modo de que la verdad asuma todo su poder es que el delincuente tome a su cuenta su propio crimen, y firme por sí mismo lo que ha sido sabia y oscuramente construido por la instrucción”.

Lehen esan bezala, tortura sistema judizialaren parte zen eta errespetatu beharreko oso erregulazio zehatza zeukan. Doktrinaren arabera, sistema penaleko joko baten modura hartu zitekeen tortura, izan ere, akusatuak tortura jasaten baldin bazuen aitortpena eman gabe, ez erruduna zelaren froga kontsideratzen zen.

“Entre el juez que ordena el tormento y el sospechoso a quien se tortura, existe también como una especie de justa; sométese al "paciente" —tal es el término por el cual se designa al supliciado— a una serie de pruebas, graduadas en severidad y de las cuales triunfa "resistiendo", o ante las cuales fracasa confesando” (Foucault, 1988, 46 or.)

Foucault (Foucault, 1988, 46 or.) autoreak azaltzen duen bezala, epaileak ez du soilik tortura ezartzen arriskuak onartu gabe. Erabaki hori hartzerakoan bildutako frogak arriskuan jartzen ziren, zeren eta, akusatuak tortura jasan eta aitortpenik ematen ez bazuen, karguak alde batera utzi beharko ziren. Hala ere, kasu larrietan arriskuan jartzen zen karta bakarra heriotza zigorra ezarri ahal izatea zen.

“en este caso el juez podía continuar, después de las torturas, haciendo valer las presunciones que reuniera; no se declaraba inocente al sospechoso por su resistencia, pero al menos debía a su victoria el no poder ser condenado a muerte. El juez conservaba todas sus cartas, excepto la principal. *Omnia citra mortem*. De ahí, la recomendación que a menudo se hacía a los jueces de no someter a tormento a un sospechoso suficientemente convicto de los crímenes más graves; porque si sucedía que resistía a la tortura, el juez no tendría ya el derecho de infligirle la pena de muerte que, sin embargo, merecía” (Foucault, 1988, 46-47 orr.).

Hala ere, aitorpena ez zen pertsona bat kondenatzeko modu bakarra. Akusatua ere zigortua izan zitekeen bi lekukoen testigantzak aurkezten baldin baziren. Beharrezkoa zen bi pertsona izatea; izan ere, pertsona bakarraren testigantza baldin bazeukaten ez zen nahikoa zigorra ezartzeko. Froga partzialtzat aurkeztu zitekeen, baina ezinezkoa zen froga partzialen batuketatik froga absolutua lortzea. Arrazoi honengatik, aitorpena bilatzen zen gehienetan, honekin soilik nahikoa zelako kondena ezartzeko. Beraz, aitorpena lortzeko torturaren mekanismora jo zen berriz ere (Peters, 1985, 72 or.).

Kontuan izan behar da tortura ez zela frogatzat hartzen, aitorpena lortzeko mekanismotzat baizik. Izan ere, aitorpena legegileen arabera ezin zen idokitua izan, beraz, tortura benetako egileak soilik ezagutuko zituen elementu zehatzak barneratzen zituen deklarazioa lortzeko erabiltzen zen (Peters, 1985, 77 or.). Azken finean, aitorpena epailearen aurrean egiten zen tortura jasan ondoren eta tortura jasandako bestelako lekuan (Peters, 1985, 87 or.), gorago aipatu den bezala. Laburbilduz, tortura froga bat (aitorpena) lortzeko mekanismoa zen (Peters, 1985, 84 or.).

Hala ere, ez zen nahikoa aitorpena ematearekin. Inkisizio garaian aitorten hori akusatuek ezagutzen ez zuten akusazioarekin erlazionatuta egon behar zen. Beraz, inkisidoreak torturarekin jarraitu zezakeen aitorten eta egitateen artean korrelazioa egon arte (Gudín Rodríguez-Magariños, 2009, 36 or.).

Fernando Savater (1982, 21 or.) autorearen arabera “Torturar es intentar conseguir una respuesta de alguien que se resiste a darla, por medio del dolor”. Eta torturaren bidez lortu nahi den egiari buruzko gogoeta interesgarria egiten du. Azaltzen duen bezala, erantzuna modu zabalean ulertu beharra dago, izan ere, torturatzerakoan ez da torturatuaren egia bilatzen, baizik eta torturatuarena.

Torturaren bidez bi gauza lortu nahi ziren inkisizio garaian: alde batetik, “egia” lortzea, eta beste aldetik, torturatuaren “birsorkuntza” (Savater & Martínez-Fresneda, 1982, 20-21 orr.), hau da, torturatuak entzun nahi duen egia lortzea eta torturatuaren

ideologia aldatzea. Izan ere, torturatzaileren ideologia izango da galdera eta erantzuna baldintzatuko dituen.

Beraz, alderdi ideologikoa ez ezik, torturak ere inkisizio garaian zati pedagogikoa zeukan. Torturatzea torturatzaileren ideologia irakastea zen, sinesmen eta pentsamendu horien transmisioa inoiz ahaztuko ez zutela ziurtatzeko modu eraginkorra zen inkisidoreen arabera (Savater & Martínez-Fresneda, 1982, 21 or.).

Bi ikuspuntu hauek, ideologia eta pedagogiarenak, Savater eta Martínez-Fresneda (1982, 24-26 orr.) autoreen arabera, inkisidorea aurkako absolutu bihurtzen dute. Helegiteko instantziarik gabe eta botererik ez zuen pertsonaren interesen babesgabetasunak, indarra ematen zioten torturatzaileri. Azken finean, inkisidorearen gainetik ez zegoen ezer gehiago, hark zeuzkalako egia eta botere absolutuak. Torturaren biktima bere eskuetan zegoen guztiz, eta inkisidorea izango litzateke torturatua berretsi egingo zuena, lehenengo honen egia absolutuan (Savater & Martínez-Fresneda, 1982, 25 or.).

2.1.b. XVIII. mendetik XX. mendera

XVIII. mendera arte tortura sistema juridikoan eta gizartean barneratuta egon zen, inork praktika honen ez egokitasunak zalantzan jarri gabe. Justizia egiteko beharrezkoa zen elementu baten modura onartzen zen, nahiz eta aurreko mendeetan kritika egiten zioten ahots batzuk agertu (Gudín Rodríguez-Magariños, 2009, 50 or.).

Mende honen amaieran torturaren erabilera abolitu egin zen, gehien bat bi instrumentu esker: 1789ko abuztuaren 4ko Giza eta Hiritar Eskubideen Aitorpena (Estatu Batuetako 1776ko Independentzia Deklarazioan oinarritutakoa) eta XVIII. mendeko pentsamendu filosofiko eta humanista (Gudín Rodríguez-Magariños, 2009, 54 or.).

Garai honetan torturak esanahi gutxiesgarria hartu zuen eta Peters (1985, 109 or.) autorearen arabera “llegó a ser considerada como la antítesis de los derechos humanos, el supremo enemigo de la jurisprudencia humanitaria y el liberalismo, y la mayor amenaza al derecho y la razón que el siglo XIX podía imaginar”.

Esan beharra dago Espainia Europako indarretatik tortura abolitzen azkena izan zela, gertaera honek adierazten du noraino sartuta zegoen estatu honetan erregimen zaharreko prozedura judiziala. Tortura debekatu zuen Espainiako lehenengo testu legala Jose Bonapartek ezarri zuen 1808. urtean. Testu hau Baionako 1808ko konstituzioa izan

zen, bere 133. artikuluan (Gudín Rodríguez-Magariños, 2009, 82 or.). Artikulua honela jasotzen zen:

133. artikulua

“El tormento queda abolido: todo rigor o apremio que se emplee en el acto de la prisión o en la detención y ejecución y no esté expresamente autorizado por la ley, es un delito”.

Hala ere, artikulua hau derogatua izan zen Fernando VII.aren itzulerarekin. Baina praktika honek bi hilabete iraun zuen indarrean, 1814ko uztailaren 25eko errege zelularekin preso eta lekukoen aurkako tortura eta tratu txarrak guztiz abolituak geratu zirelako Espainian (Gudín Rodríguez-Magariños, 2009, 83 or.). Beraz, torturaren abolizioa ez zen soilik mugimendu humanitarioa izan, baizik eta sistema judiziala erabateko aldaketara mugitzen hasi zen pixkanaka (Rodríguez Mesa, 2000, 18 or.).

Torturaren abolizioa lehen esan bezala ilustrazioko ideiekin erlazionatuta egon zen, gehien bat alderdi humanitarioa bultzatzen zuten pentsamenduekin, gizakien eskubideak eta duintasuna jurisprudentzia penalean gailentzen zutenak (Peters, 1985, 110 or.). Hala ere, nahiz eta bere garrantzia izan, ez zen aldaketa bultzatu zuen elementu bakarra ezta eraginkorra ere. Torturaren inguruko eraldaketa handienak frogak lortzeko moduaren eskutik etorri ziren, eta pertsonen sistema judizialarekin zeukaten harremanarekin (Peters, 1985, 111 or.).

Mugimendu humanismo-progresista jarraituz hainbat autoreek torturaren amaiera izan zela aitortu zuten, ordalia eta jainkoen epaiketekin gertatu zen bezala. Baina baikortasun honek XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera arte iraun zuen, izan ere, Lehenengo Guda Mundialaren hasierarekin tortura berriz ere erabiltzen hasi zen sistema juridikoan. Aldaketa honi ilustrazioko ideiak jarraitzen zutenek eman zioten azalpena, XX. mendean munduan izandako humanismoaren jaitsiera izan zen (Peters, 1985, 112 or.).

Petersek (Peters, 1985, 150- 224 orr.), XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran izan zen torturaren berragerpena azaltzeko Mellor autorearen teoriak kontuan hartzen ditu, baina bere ordena propioa emanez. Autore honen arabera torturaren berragerpenean lagundu zuten lau elementuak modu eta segida honetan azaltzen ditu:

- **Poliziaren irudiaren sorrera:** autorearen arabera “el surgimiento de la prisión y la policía señala un cambio decisivo en la historia de la justicia penal” (Peters,

1985, 154 or.). Polizia herrialde bakoitzean modu batean sortu zen, baina azken finean, instituzio horren helburua berdina zen leku guztietan: gizartearen kontrola eta delituak zigortzea. Testigantzak torturaren bidez lortzen ziren askotan, polizian interesa ez zuen sistema judizialek kanpo, ondoren testigantza hauek prozedura judizialean frogatzat aurkezteko. Beraz, tortura ez zen derrigorrez sistema judizialak ezarritako prozedura bat, baizik eta batzuetan epailea berak jakin gabe ere agertu zitekeen praktika. Nahiz eta denborarekin praktika hauek arautuz joan ziren, torturaren erabilera hau Peters (Peters, 1985, 157 or.) autorearen arabera “ejemplifica un aspecto clásico de la moderna historia de la policía en relación con la tortura y otras violaciones de los derechos civiles”. Tortura eta poliziaren arazoa konplexuagoa egin zen politikariak eta estatuko beste indar batzuk hauen gainean eragiten hasi zirenean (Peters, 1985, 158 or.).

XIX. mendearen amaieran Europako estatu batzuetan eta Estatu Batuetan aplikatutako burokrazia administratiboaren eta polizia gobernuaren menpe jartzearen gertakariak, tortura berragertzeko aukera ugari ezarri zituzten, nahiz eta torturak herrialde askotan legez debekatuta jarraitu (Peters, 1985, 159 or.).

“El estado había creado otros funcionarios, además de los jueces, a quienes podía confiarse la tortura, y la prohibición por ley significaba poco si sólo regía para los jueces y funcionarios de tribunales y no para funcionarios del estado que estaban fuera de su control” (Peters, 1985, 159-160 or.).

- **Adimen militarren gorakada:** Diziplina militarra gogortzerakoan, soldaduen bizimodua eta portaera ere gogortu egin zen, ilustrazioan gailendutako humanismoaren ideia alde batera utziz (Peters, 1985, 160 or.). Jarrera honek gudetako presoan eta espioien galdeketak egiteko moduan eraldaketak sorrarazi zituen; izan ere, adimen militarren bidez modu azkarrean segurtasuna lortzea bilatzen zen.

Helburu horiek lortzeko, atxilotuari aurkariari buruz zekien informazio guztia atera behar zitzaion eta, ilustrazioko ideien galeraren ondorioz besteak beste, tortura modu egokia zen aitorten hori lortzeko (Peters, 1985, 161 or.). Nahiz eta presoaren eskubideak babesten zituzten legeak eta idatziak egon, ezinezkoa egiten zen gudaren

ingurugiro arrotzean zeuden pertsona guztiak kontrolatzea. Modu honetan adierazten du Peters (1985, 162 or.) autoreak:

“La creciente independencia de los comandantes y estados mayores militares y la creciente capacidad destructiva de los ejércitos modernos sometieron a duras pruebas la doctrina del respeto por los derechos de los prisioneros y los no-combatientes e hicieron poco para mejorar el destino del espía capturado”.

- **Krimen politikoa:** Delitu honen European egin ziren lehenengo definizioak, estatuaren gobernatzaileen eta funtzionario nagusien kontra zihoazen ekintzak jasotzen zituzten. Baina denbora aurrera joan ahala tipifikazioa aldatuz joan zen, Estatuaren kontra eta beraz, hiritarren kontra zihoan delitutzat kontsideratu arte (Peters, 1985, 163 or.). Autorearentzat (Peters, 1985, 166 or.) krimen politikoaren tipifikazio liberalistak torturaren inguruan bi ekarpen nagusi egin zituen: alde batetik, estatuaren autoritatearen eta izaeraren analisi sakona egiteko bidea ireki zuen; eta beste aldetik, “creó un precedente de tratamiento indulgente del crimen político contra el cual reaccionar cuando las actitudes hacia algunos tipos de criminales políticos cambiasen al final del siglo”.

Bi krimen politiko mota existitzen ziren: barnekoa eta kanpokoak. Barneko krimen politikoari garrantzia eta zigor txikiagoak eman zitzaizkion XIX. mendearan amaieran zehar, pentsamendu idealista zeukaten pertsonatzat hartuak zirelako. Baina kanpoko mehatxuak handitu zirenean eta estatuen sentimendu nazionalista gailentzen hasi zenean traizioa kontsidera zitekeen (Peters, 1985, 167 or.). Beraz, aurreko guden, tentsio internazionalen eta Lehenengo Mundu Gudaren susmoaren ondorioz krimen politikoaren tipifikazioa aldatuz joan zen eta barne krimena kanpotarra bezain larria kontsideratzera iritsi zen. Nazioaren kontra zihoazen ekintzek delitu arruntek baino larritasun handiagoa hartu zuten, hiritarren borondatearen kontrako ekintzak zirelako eta beraz, beharrezkoak ziren teknikak erabili behar ziren hura ekiditeko, tortura barne (Peters, 1985, 167-168 orr.).

- **Estatu totalitarioak:** Torturaren berragertzea azaltzen duen laugarren elementua estatuen muturreko nazionalismoa izan zen. Estatu hauetan banakako eskubideak ez zuten garrantzirik eta estatua hauen gainetik jartzen zen (Peters, 1985, 170 or.). Erraza da ikustea nola eragin zezakeen pentsamendu honek torturaren erabileraren berragertzean. Estatu hauen artean adibide ezagunena hirugarren Reich-ena izan

daiteke. 1942an hirugarren graduaren izenarekin ezagututako galdeketa teknika ezarri zen Alemanian. Teknika honek ondorengo ezaugarriak zituen: ura eta ogi zati bateko jan-neurria, loaren gabetzea, ekintza edo jarduera gogorrek burutzea, banandutako gela batean egotea, inorekin ez hitz egitea eta kolpe ugari jasatea besteak beste (Peters, 1985, 174 or.).

Hogei kolpe jasotzerakoan medikua kontsultatu behar zen presoaren egoera adierazteko eta modu honetan informatzailearen heriotza ekiditeko eta torturarekin jarraitu ahal izateko (Peters, 1985, 174 or.). Peters (1985, 174 or.) autorearen arabera tortura mediku espezializazio bat bihurtu zen garai honetan .

Baina nahiz eta estatu demokratiko liberalek estatu nazionalistek burutzen zituzten ekintzak aberraziotzat izan, XX. mendearen erdialdean hiri hauetan ere tortura erabiltzen zela ikusi ahal izan zen. Horietako kasu bat Frantziako polizia Argeliarren kontra burutzen zituen torturaren bidezko galdeketa izan zen (Peters, 1985, 184 or.). Gainera XX. mendearen amaieran, lehen esan bezala, torturaren ekintzan medikuak eta profesionalak parte hartzen hasi ziren (Peters, 1985, 224 or.); honek adierazten du galdeketa egiteko eta aitortpenak lortzeko teknikan espezialistak ziren pertsonak sortzen ari zirela, eta hauekin batera torturatzeko instrumentu berriak.

2.2. Oinarri kontzeptualak

Aurreko atalean torturak historian zehar izan duen eraldaketa eta erabilera landu da. Atal honetan berriz, torturaren kontzeptu honi eman ahal zaion definizioa ikusi ahal izango da. Kontzeptu hau zehaztea zaila da, aurreko zatian ikusi bezala denborarekin eraldatuz doa eta.

2.2.a. Torturaren definizioa

Marko kontzeptuala zehazteko arau internazionalak zein nazionalak erabili dira. Arlo internazionalen torturari buruz adostutako definizioa 1984ko “Torturaren eta bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Apalesgarrien Aurkako Konbentzioko” dokumentuaren lehenengo artikuluan jasotzen dena izango litzateke. Honela zehazten da terminoa:

“se entenderá por el término “tortura” todo acto por el cual se inflija intencionadamente a una persona dolores o sufrimientos graves, ya sean físicos o mentales, con el fin de obtener de ella o de un tercero información o una confesión, de castigarla por un acto que haya cometido, o se sospeche que ha cometido, o de intimidar o coaccionar a esa persona o a otras, o por cualquier razón basada en cualquier tipo de discriminación, cuando dichos dolores o sufrimientos sean infligidos por un funcionario público u otra persona en el ejercicio de funciones públicas, a instigación suya, o con su consentimiento o aquiescencia. No se considerarán torturas los dolores o sufrimientos que sean consecuencia únicamente de sanciones legítimas, o que sean inherentes o incidentales a éstas”.

Definizio honen aurrekaria 1975eko “Tortura eta beste tratu edo zigor krudel, anker eta iraingarrien kontrako pertsona guztien babeserako aitortpena” dokumentuan jasotzen da honen lehenengo artikuluan. Edukia zera esaten du:

1. artikulua

“1. A los efectos de la presente Declaración, se entenderá por tortura todo acto por el cual un funcionario público, u otra persona a instigación suya, inflija intencionalmente a una persona penas o sufrimientos graves, ya sean físicos o mentales, con el fin de obtener de ella o de un tercero información o una confesión, de castigarla por un acto que haya cometido o se sospeche que ha cometido, o de intimidar a esa persona o a otras. No se considerarán tortura las penas o sufrimientos que sean consecuencia únicamente de la privación legítima de la libertad, o sean inherentes o incidentales a ésta, en la medida en que estén en consonancia con las Reglas Mínimas para el Tratamiento de los Reclusos.

2. La tortura constituye una forma agravada y deliberada de trato o pena cruel, inhumano o degradante”.

Deklarazio honek torturaren definizio bat ematen zuen, zeina 1984ko konbentzioaren definizioa zehazteko eredutzat erabili zen. Hala ere, hitzarmena ez bezala, deklarazioa juridikoki loteslea ez den dokumentua da, hau da, estatuek ez daukate obligaziorik bertan ezarritakoa errespetatzeko. Hitzarmenean berriz, hura onartu duten estatuak behartuak egongo dira bertan ezartzen dena errespetatzera. Ondorioz, torturaren kontrako hitzarmena prestatzen hasi ziren 1977an (De la Cuesta, J. L., 1990). Urteetan zehar hainbat proiektu aurkeztu eta erreforma ugari egin ondoren, hitzarmena onartua izan zen 1984ko abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala baino 36 urte geroago.

Arlo nazionalean, hau da, Espainiako legeetan berriz, torturaren definizioa Zigor Kodean aurkitu daiteke 174. artikuluan. Espainiako Konstituzioan ere aipamena egiten zaio, baina hurrengo atalean ikusi ahal izango denez, ez du definizio ezta zehaztasunik

ematen. Beraz, Espainiako lege penaletan oinarrituta torturaren definizioa honakoa izango litzateke:

174. artikulua

“1. Agintari edo funtzionario publikoak tortura egiten du, bere karguaz abusatuz, pertsona baten aitortza edo informazioa lortzeko helburuarekin edo pertsona horrek gauzatu duen edo gauzatu duela susmatzen den egitatearengatik zigortzeko helburuarekin, pertsonari baldintzak edo prozedurak ezartzen dizkionean, beren izaera, iraupena edo bestelako inguruabarren ondorioz, gorputzeko edo buruko sufrimenduak eragiten dizkietenak, ezagutu, bereizi edo erabakitzeko ahalmenak ezabatu edo gutxitzen dizkietenak, edo beste edozein modutan pertsonaren osotasun moralaren aurka atentatu egiten dutenak. Torturaren errudunari bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio atentatua larria bada; bestela, urtebetetik hiru artekoa. Edozein kasutan, adierazitako zigorrez gain, erabateko desgaitasuna zigorra ezarriko zaio, zortzi urtetik hamabi artekoa.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio, hurrenez hurren, espetxeetako edo adingabeen babes-etxe nahiz zentzatosietako agintari edo funtzionarioari, aurreko paragrafoan azaldutako egitateak gauzatzen baditu atxilotu, barneratu edo presoengandik inguruan”.

Hala ere, Espainiako Zigor Kodeko 174. artikulua 1995eko Kode Penalarekin berritu egin zen. Honen aurrekaria 1973ko Zigor Kodean jasotzen zen honako edukiarekin:

204 bis artikulua

“La autoridad o funcionario público que, en el curso de la investigación policial o judicial, y con el fin de obtener una confesión o testimonio, cometiere alguno de los delitos previstos en los capítulos I y IV del título VIII y capítulo VI del título XII de este Código, será castigado con la pena señalada al delito en su grado máximo y, además, la de inhabilitación especial.

Si con el mismo fin ejecutaren alguno de los actos penados en el artículo 582, párrafo segundo, el hecho se reputará delito y serán castigados con las penas de prisión menor en sus grados mínimo a medio e inhabilitación especial. Cuando los actos ejecutados sean algunos de los previstos en el artículo 585, el hecho se reputará igualmente delito y será castigado con las penas de arresto mayor y suspensión.

En las mismas penas incurrirán, respectivamente, la autoridad o funcionario de instituciones penitenciarias que cometiere, respecto de detenidos o presos, los actos a que se refieren los párrafos anteriores.

La autoridad o funcionario público que en el curso de un procedimiento judicial penal o en la investigación del delito sometieren al interrogado a condiciones o procedimientos que le intimiden o violenten su voluntad, será castigado con la pena de arresto mayor e inhabilitación especial.

Igualmente se impondrán las penas establecidas en los párrafos precedentes a la autoridad o funcionario que, faltando a los deberes de su cargo, permitiesen que otras personas ejecuten los hechos previstos en ellos”.

Nahiz eta artikulu honetan tortura hitza ez agertu, bere idazkeraren arabera ulertu daiteke torturaren delitua arautzen zuela. Gainera Kongresuko partidu sozialistak 1978ko urtarrilaren 24an aurkeztutako lege proposamenaren, artikulu honen aplikazioa proposatzen zuena, izenburua honakoa zen: “TORTURA. Modifica el Código Penal introduciendo sendos artículos en sus títulos VII y XII que tipifican las diversas formas de esta aberración delictiva” (Gobierno de España, 1978, 938 or.). 1995eko Kode Penalarekin torturaren tipifikazioa aldatu izan zen, baina hala ere, 174. artikulua gaur egun ezagutzen den bezala, azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoaren erreformarekin ezarria izan zen.

Jose Luis de La Cuestaren (1990) arabera, torturaren definiziotik internazionalki onartutako ezaugarri minimoak ondorioztatu daitezke, horien artean: Ofentsa anitzeko delitua, berezia, ondoriozkoa, doluzkoa, joerazkoa eta ez-egiteagatik egiteagatik ere burutu daitekeena.

Alde batetik, definizioan ikusi daitekeen bezala, ofentsa anitzeko delitua kontsideratuko da, babesgarriak diren hainbat ondasun juridiko aurka egiten duen delitua delako. Ondasun juridiko hauek ere mota anitzekoak dira; izan ere, ondasun indibidual zein kolektiboen aurka joan daiteke. Torturak pertsonaren ezaugarri garrantzitsuenen aurka egiten du: bere pertsonalitatea eta osotasun fisikoa, psikikoa eta morala. Arrazoi honengatik De La Cuestaren (1998, 47 or.) hitzetan tortura: “se presenta además, en su definición internacional, como una forma especialmente reprobable de abuso de poder en el marco de la Administración Pública y de la Administración de Justicia, cuyo funcionamiento viene a desnaturalizar y pervertir”.

Definizioa ikusiz, argi geratzen da delitua kontsideratzeko subjektu aktiboa pertsona konkretu batzuk izan behar direla. Arrazoi horrengatik **delitu berezia** dela esaten da. Lege internazionalak aparte, zigor kodean ere adierazten da subjektu aktiboa funtzionarioa edo kargu publikoa betetzen duen pertsona izan beharko dela tortura dela esateko¹. Atal hau oso kritikagarria izan daiteke; izan ere, funtzio publiko betetzen ez duten pertsonak ere tortura burutu dezakete. De la Cuesta (1990, 33 or.) autorearen hitzetan tortura “puede (y suele) ser practicada por particulares y/o expertos no

¹ Zigor Kodeko 174. Artikulua: “Agintari edo funtzionario publikoak tortura egiten du, (...)”

funcionarios, integrados o no en fuerzas paramilitares o terroristas”. Baina hainbat autoreen arabera, torturaren definizioari lotuta dagoen baldintza bat da subjektu aktiboaren funtzio publikoa (Peters, E., 1985); izan ere, juridikoki ez delako ekintza edo arlo pribatuarekin erlazionatutako gaia, baizik eta proba baten egikaritzarekin: testigantza edo aitortpena (De la Cuesta, J. L., 1990). Beraz, aurrerago ikusiko den bezala, testigantza edo aitortpenaren lorpenaren helburua, tratu txarretatik bereiziko duen elementua izango da, eta helburu hori lortzeko funtzio publikoa beharrezkoa da.

Ondoriozko delitua dela esan da gorago, izan ere, Konbentzioan azaldutako definizioaren arabera pertsona bati psikologikoak, fisikoak edo mentalak diren min edo sufrimendu larriak sortzean datza tortura. Min edo sufrimenduak sorraraztearen baldintza tortura kontzeptuaren oinarria da. Hau erreferentzia egiten dio, borondate indibidualaren askatasunari eragiten dioten portaerak erabiliz, pertsona baten ongizatean eraldaketak sortarazteari. Tratu hauek pertsonaren erresistentzia behera botatzeko gai izango ziren, bilatutako testigantza lortuz (De la Cuesta, J. L., 1990).

Larritasunaren baldintza ere eskatzen da tortura kontsideratzeko, hau da, soilik kasu larrienak izango dute torturaren izaera. Modu honetan tratu txar soiletatik bereizten da. Hala ere, nahiko arazotsua izan daiteke larritasunaren kontzeptua, izan ere, biktimaren erresistentzia edo torturazaillearen teknikagatik, pertsona bakoitzarentzako ekintza berdinak bestelako larritasuna izan dezake. Arrazoi horrengatik beharrezkoa da larritasunaren kontzeptua zehaztea, baina definizio zehatz baten faltan, interpretazioa epaileen esku uzten da gaur egun, horrek dakarren subjektibotasunaren arriskuarekin.

Atal honetan, garrantzitsua da gorago emandako bi idazkien definizioetan agertzen den zati bat aztertzea. Torturaren delitua aintzat hartzeko, beharrezkoa izango da sortutako sufrimendu larri horiek legitimatutako zigorren ondorioa ez izatea². Zilegiak diren zigorrak torturaren kontzeptutik baztertzerakoan, hauen bidez deklarazioa bilatzeko atea zabalik uzten da. Anbiguotasun handiko elementua sartzen da, beraz, torturaren definizioan, doktrinaren iritziz, estatuari legezkoak diren zigorren bidez tratu txarrak burutzeko aukera, edo zigor fisiko edo psikikoak mantentzeko edo ezartzeko baimena ematen zaiola dirudielako³ (De la Cuesta, J. L., 1990).

² 1984ko hitzarmenaren lehenengo artikuluko lehenengo puntuko azkenengo zata zera dio: “que sean consecuencia únicamente de sanciones legítimas, o que sean inherentes o incidentales a éstas.”

³ J. L. De la Cuestaren arabera, egokiagoa izango litzateke BASSIOUNIren “Proyecto del código Penal Internacional”-ean jasotzen den definizioa jarraitzea. Honako edukia dauka: “(...) la correcta ejecución de una sanción legal que no constituya tratamiento o pena cruel, inhumana o degradante”. Zita hau *Derecho Penal Internacional*, 139 or., liburutik hartzen du.

Doluz burutu beharreko ekintza da, halaber, tortura. Hau da, torturaren emaitzak bilatu behar dira, ezinezkoa da zuhurtzai ezagatik gertatzea, hain sufrimendu larriak ezin direlako hutsegite batengatik sortuak izan. Beraz, tortura nahita burutzen den ekintza bat da (De la Cuesta, J. L., 1990). Dolu zuzena beharrezkoa izango da kontuan izanda tortura kontsideratzeko beharrezkoa den sufrimendu maila. Hau horrela izanda, gertatze bidezko doloa baztertu egiten da eta ez da tortura bezala hartuko ezta ere zuhurtzai ezagatik burututako ekintzak nahiz eta hauek larriak izan, lehen aipatu den bezala (De la Cuesta, J. L., 1998).

Beste aldetik, esan beharra dago torturak helburu bat jarraitu behar duela honela kontsideratua izateko. **Joerazko delitua** da. Helburu hau, konbentzioaren eta Kode Penalaren definizioetan agertzen den bezala, testigantzaaren edo aitortpenaren lorpena izango da (De la Cuesta, J. L., 1998). Beraz, helbururik jarraitzen ez baldin badu ez da tortura izango, tratu txarrak baizik.

Azkenik aztertu beharreko ezaugarria **ez-egiteagatiko egitea** da. Ulergarria da tortura ez-egiteagatik ere burutu ahal izatea; zan ere, tortura mota bat da baita ere pertsona bat bizitzeko behar dituen elementuak ez jasotzea edo pairatzen dituen gaixotasunetatik tratatua ez izatea (De la Cuesta, J. L., 1990). Gainera Espainiako Zigor Kodeko 174. artikuluaaren definizioan ikusi daitekeen bezala, torturatzat hartuko da pertsona bat hurrengo egoeran jartzea:

“[...] a condiciones o procedimientos que por su naturaleza, duración u otras circunstancias, le supongan sufrimientos físicos o mentales, la supresión o disminución de sus facultades de conocimiento, discernimiento o decisión o que, de cualquier otro modo, atenten contra su integridad moral”.

Atal horretatik ulertu daiteke aipatutako egoera larriak sortzen dituzten ekintza guztiak tortura kontsideratuko direla, eta ondorioz, ez-egiteak ere sufrimendu fisikoak eta mentalak sortu ditzaketan heinean, torturaren definizioaren barne aurkituko dira eta zigortuak izan beharko dira.

2.2.b. Tortura eta tratu txarren arteko bereizketa

Aurreko atalean ikusi den definizioaren arabera, oso erraza izan daiteke tortura tratu txarrekin nahastea. Ondo bereizi beharreko bi termino dira; izan ere, torturaz hitz egiterakoan askotan tortura tratu txar hitzgatik aldatu egiten da sinonimoak izango balira bezala, eta kontzeptu bakoitzak definizio eta trataera desberdinak dauzka. Kontuan izan behar da, tratu txarrekin ez direla torturarekin jarraitzen diren arau berdinak jarraitzen, adibidez, ez zaizkie aplikagarria estradizioaren arauak ezta estatuek aplikatu beharreko neurriak edo obligazioak (De la Cuesta, J. L., 1990). 1984ko Europako konbentzioan tratu txarrak 16. artikuluan jasotzen dira. Bere edukia honakoa da:

16. artikulua

“1. Todo Estado Parte se comprometerá a prohibir en cualquier territorio bajo su jurisdicción otros actos que constituyan tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes y que no lleguen a ser tortura tal como se define en el artículo 1, cuando esos actos sean cometidos por un funcionario público u otra persona que actúe en el ejercicio de funciones oficiales, o por instigación o con el consentimiento o la aquiescencia de tal funcionario o persona. Se aplicarán, en particular, las obligaciones enunciadas en los artículos 10, 11, 12 y 13, sustituyendo las referencias a la tortura por referencias a otras formas de tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes.

2. La presente Convención se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en otros instrumentos internacionales o leyes nacionales que prohíban los tratos y las penas crueles, inhumanos o degradantes o que se refieran a la extradición o expulsión”.

Espainiako Zigor Kodeari dagokionez, tratu txarren definizioa 175. artikuluan jasotzen da eta honako edukia dauka:

175. artikulua

“Agintari edo funtzionarioak, bere karguz abusatuz eta aurreko artikuluan ezarritako kasuetatik kanpo, pertsona baten osotasun moralaren aurka atentatu egin badu, orduan, horri bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, atentatua larria bada, eta ez bada sei hilabetetik bi urte artekoa ezarriko zaio. Edozein kasutan, adierazitako zigorrez gain, egileari enplegu edo kargu publikoan aritzeko desgaitasuna berezia ezarriko zaio, bi urtetik lau artekoa”.

Ikusi daitekeen bezala, ez da definizio zehatzik ezta inguruabarririk ematen tratu txarrak torturarengatik bereizteko, adierazten den gauza bakarra da torturatzat hartzen ez diren ekintza iraingarriak ere zigortu egingo direla.

Artikuluaren lehenengo irakurketa egiterakoan, tratu txar eta torturaren artean adierazten den desberdintasun bakarra ekintzen larritasuna dela esan daiteke. Baina irakurketa sakonagoa egiterakoan, doktrinaren arabera, beste ondorio batzuk atera daitezke: alde batetik, ez da beharrezkoa funtzionarioa izatea tratu txarrak burutu ahal izateko; eta beste aldetik, tratu txarrak ez dute torturaren motibazioa jarraitzen.

Subjektu aktiboari dagokionez, ez da beharrezkoa funtzionarioa izatea konbentzioaren definizioan azaltzen den bezala. Aipatzen da beste pertsona batzuek ere delitu hau burutu ahal izango dutela autoritate baten menpe baldin badaude edo funtzionario kargua daukan pertsonaren baimena baldin badauka, besteak beste (De la Cuesta, J. L., 1990). Zigor kodeari dagokionez, ekintza burutzen duena funtzionario publikoa edo autoritate bat izan beharko dela esaten du, horrela ez izanez gero 173. artikuluan tipifikatutako portaera bat izango zelako.

Aipatutako beste desberdintasuna da tratu txarrak ez dutela helbururik jarraitzen. Hau da, tratu txarrak arrazoirik gabe sortutako kalteak izango dira eta ez helburu bat lortzeko (testigantza edo informazioa lortzea) torturan gertatzen den bezala. Beraz, tratu txarrak torturaren propioak diren helburuak barneratzen ez dituzten ekintza iraingarri edo apalesgarriak izango dira (De la Cuesta, J. L., 1998).

Hala ere, konbentzioak eta Zigor kodeak ematen dituzten definizioak ez dira nahikoak tratu txarrak eta torturak bereizteko. Gainera ez da larritasun kontzeptua zehazten eta ondorioz, zaila egiten da bereiztea zein portaera izan daitezkeen tortura eta zein tratu txarrak. Arrazoi honengatik, beharrezkoa egiten da jurisprudentziara jotzea, bertan hitz nahasgarri hauek modu argiago batean azaltzen saiatzen direlako interpretazio egokia lortzeko.

Bereizketa hau jasotzen duen Estrasburgoko tribunalaren jurisprudentzia garrantzitsuenetariko bat eta gaur egun oraindik erabiltzen dena, 1978ko Irlanda erresuma batuaren aurkako kasua (Caso Irlanda contra Reino Unido, 1978) izan da. Sententzia honen arabera IRA taldearen partaide batzuen aurka burututako bost ekintza ez ziren tortura kontsideratu, ez zutelako torturak sortzen duen sufrimendu larrien maila. Bost teknika horiek honakoak ziren:

- Pareta baten kontra zutik egotea: Atxilotutako pertsonentzat deserosoa zen posizio batean egotera behartzen zituzten orduetan zehar. Hankak eta besoak

bananduak egon behar ziren eta paretaren kontra eta eskuen behatzak buruaren gainetik paretara ukitzen. Posizio honetan gorputzaren pisu guztia hanketako behatzetan jartzen zen.

- Txanodunak: Atxilotuen buruak sakoekin estaltzen ziren momentu oro, itaunketan izan ezik.
- Zarata: Zarata handia zegoen geletan sartuak zeuden galdeketak baino lehenago.
- Loaren gabetzea: itaunketak baino lehenago lo egitea debekatzen zitzaien.
- Janari eta edariaren gabetzea: Janari eta edari kopuru txikia jasotzen zuten haien atxiloketan zehar.

Tratu txarren eta torturaren artean burutzen duen bereizketa ere ez da oso argia; izan ere, haien erabakia kalteen larritasunean oinarritzen dute larria zer den modu objektibo batean definitu gabe. Hau horrela izanda, kasu honen inguruan tribunalaren erabakia hurrengoia izan zen:

“Aunque las cinco técnicas, utilizadas de forma acumulada, hayan presentado sin duda alguna el carácter de un trato inhumano y degradante, teniendo como fin arrancar confesiones, denuncias o informaciones, y hayan sido aplicadas de manera sistemática, no han causado sufrimientos de la intensidad y crueldad particulares que implica el término tortura así entendido” (Caso Irlanda contra Reino Unido, 1978, 522 or.)

Kontuan izan behar da, sententzia hau 1978. urtekoa dela; beraz, gaur egun kasu honi emango litzaiokeen erresoluzioa beste bat izango litzateke seguruenik. Berriagoa den jurisprudentziara jotzen baldin badugu, larritasunaren kontzeptua ez da asko argitzen ezta ere, baina tratu txarren bereizketa zabalagoa eskaintzen dute. 2009. Urtean Auzitegi Nagusiak emandako sententzian (RJ 2009, 5742) , tratu txarren elementuak aipatzen dira. Honakoa esaten da:

- “a) en cuanto al sujeto activo, tiene que tratarse de un funcionario público o autoridad, ya que en caso contrario la ley prevé la sanción por la vía del art. 173, si bien este último precepto refuerza la acción inflingiéndose un trato degradante, adjetivación que no se predica del acto comisivo en este delito, aunque puede considerarse implícito;
- b) en cuanto a la acción, el sujeto activo tiene que abusar de su cargo, lo que significa su comportamiento extralimitativo, prevaleciéndose de su condición pública, lo que produce una cierta intimidación para la consecución de sus fines y de sensación de impunidad en su comportamiento;
- c) el resultado consiste en atentar contra la integridad moral de una persona. El derecho a la integridad moral está reconocido constitucionalmente en el

art. 15 de nuestra Carta Magna (RCL 1978, 2836), que proscribe con carácter general los tratos degradantes y que se conecta directamente con la dignidad de la persona, cuyo art. 10º atribuye a la misma ser el fundamento del orden político y de la paz social;
 d) por último, los hechos no pueden ser constitutivos del delito de torturas, lo que le confiere un carácter residual”.

2.3. Lege-testuingurua

Aurreko atalean historian zehar emandako torturaren erabilera eta honen berragerpena azaltzen da. Atal honetan berriz, delitu honen abolizioa edo bere erabileraren gutxitzea bultzatu zuten legeak aztertuko dira. Torturaren historiaren ataletan ikusi ahal izan den bezala, torturaren inguruko legiazioa berandu agertu zen. Lanaren zati honetan XVIII. urtetik aurrera mundu mailan emandako torturaren aurkako legeen eboluzioa landuko da, gaur egungo Espainiako legedia aztertzen amaitzeko. Atal honekin lortu nahi dena legetan torturak duen presentziaren testu-inguraketa egitea da; izan ere, lege ugari existitzen direnez esanguratsuenak aztertzen dira soilik.

2.3.a. Maila unibertsaleko lege-testuingurua

Maila unibertsalean torturaren inguruan aurkitu ditzakegun lege aipagarrienak, nahiz eta gehiago egon, bost izango dira. Torturaren debekua ezarri zuen lehenengo nazioarteko legea 1948ko abenduaren 10ean idatzitako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala izan zen, bere bosgarren artikuluan. Honen bidez, tortura estatuen agindupean lan egiten zuten funtzionarioen delitutzat ezarri zen, eta beste aldetik, portaera honek pertsonen duintasun eta integritate fisiko zein moralaren gainean sortzen zuen kaltea adierazi zen (Pérez Machío, 2009, 204 or.).

1966ko abenduaren 16an Eskubide Politiko eta Sozialen Nazioarteko ituna sinatu zen. Zeinaren bidez, ituna onartutako estatuek bertan agertzen ziren eskubideak bermatzera konprometitzen ziren. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala ez bezala, pakto hau loteslea zenez estatuek behartuak zeuden bertan adierazten zena errespetatzera. Itun honen zazpigarren artikuluan jasotzen zen torturaren debekua. Artikulu honen erredakzioa Adierazpen Unibertsalaren bosgarren artikularen berdina zen (Pérez Machío, 2009, 204 or.). Baina instrumentu internazional hauek torturaren debekua soilik ezartzen zuten, tortura zer kontsideratu zitekeen adierazi gabe.

Aurreko ataleko 2.2.a. puntuan agertzen den bezala, torturari buruzko egin zen lehenengo definizioa 1975eko abenduaren 9an onartutako eta 3452 erresoluzioan eranskin bezala jasotako “Tortura eta beste Tratu edo Zigor Krudel, anker eta apalesgarrietatik pertsona guztiak babesteari buruzko deklarazioan” agertu zen. Definizio hau ondorengoan oinarritzen zen: askatasuna, bakea eta justizia ezartzeko beharrezkoa zela pertsonen duintasuna eta legearen aurreko berdintasuna bermatzea (Peters, 1985, 197-198 orr.).

Baina aitortpena aurreko puntuan azaldu den bezala ez da dokumentu loteslea, eta ondorioz estatuek ez daukate hura jarraitzeko beharrik. Arrazoi horrengatik 1977. urtetik aurrera “Torturaren eta beste Tratu edo Zigor Krudel, Anker eta apalesgarrien kontrako hitzarmena” prestatzen hasi zen, zeina 1984ko abenduaren 10ean onartua izan zen. 1987an indarrean sartu zen, beharrezkoak ziren berrespenak lortu zituenean. Hitzarmen honen bidez tortura bere adierazpen guztietan debekatzen da, guda bezalako egoera bereziak salbuespen modura ez onartuz (Pérez Machío, 2009, 205 or.).

Hala ere, hitzarmena sinatu baino lehen 1955. urtean presoek tratamendurako gutxieneko arauak Nazio Batuen erakundeak onartu zituen. Arau hauen bidez ez zen tortura zuzenean debekatzen, baina sistema penitentiarioan presoek eskubideen eta tratamendu egokirako bermek pisu gehiago hartu zuten. Modu honetan zeharkako bide batetik torturaren kontrola gertatu zen, sistema penitentiarioaren gaineko kontrola handitzerakoan eta atxilotuen eskubideak gailentzerakoan. Arau hauek ez ziren behin betikoak izan, izan ere, denborarekin arau berriak sartuz joan ziren (Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, 1955).

2.3.b. Europako lege-testuingurua

Maila Europarrean berriz, bi arau dira aipagarriak. Alde batetik, 1950eko azaroaren 4an onartutako “Giza Eskubide eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako europar hitzarmena” aurkitu daiteke. 1953. urtean indarrean sartu zen eta bere helburua Europar batasunaren parte diren pertsonen giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babestea eta bermatzea da. Europar hitzarmen hau “Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean” oinarrituta dago (Pérez Machío, 2009, 204 or.).

Bigarren guda mundialaren ondorioz Europan giza eskubideak babesten zituen araua beharrezkoa egiten zen, eta “Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren” aldarrikapenaren bidez Europan ere horrelako mekanismoa ezartzeko interesa sortu zen.

Hitzarmenak deklarazioaren idazkera berdintsua izaterakoan honetan ezartzen den torturaren debeku absolutua ere jasotzen da. Egoera zail eta berezietan ere torturaren debekua mantentzen da eta pertsonen eskubideak babesteko bermea adierazten da modu absolutu batean (Pérez Machío, 2009, 204 or.).

Beste aldetik, 1987ko azaroaren 26an onartutako “Torturaren eta beste tratu edo zigor krudel, anker eta iraingarrien prebentziorako Europar hitzarmena” aztertu beharra dago. Hitzarmen honen bidez torturaren eta tratu edo zigor krudel edo ankerren prebentziorako batzorde europarra sortzen da. Batzorde honen funtzioa preso dauden pertsonen tratamendua aztertzea izango da, eta horretarako noizean behin espetxeetan errebisioak egin beharko dituzte (Morenilla Rodriguez, 1988, 5251 or.).

Torturaren inguruko hitzarmen europar honek izaera prebentiboa du, eta ez judiziala. Hitzarmenaren funtzionamendua Estatuaren eta bisitak burutu behar dituzten batzordearen arteko elkarlanean oinarritzen da. Beraz, ez da torturak salatzeke mekanismo bat, baizik eta tortura bezalako ekintzak ez burutzeko prebentzioa egiten duen instrumentua. Hitzarmen hau berresterakoan Estatuak konprometitu egiten dira haien lurraldeetatik tortura debekatu eta ezabatzea, onartu egiten dute nazioarteko erakundearen kontrola ekintza horiek guztiz erauzteko (Morenilla Rodriguez, 1988, 5252 or.).

Bisitarako batzordea osotasun moral handia duten eta Justizia administrazioan eskumena duten pertsonen osatuko dute. Hauek gehiengo absolutuaren bidez aukeratuak izan beharko dira eta nazionalitate bakoitzeko ordezkari bakarra egongo da batzordean. Aurreko paragrafoan azaldu den bezala funtzio nagusia espetxeak bisitatzea izango da, presoek tratamendu egokia ematen zaiela ikusteko eta Estatuari gomendioak eman ahalko dizkiete hobetu beharreko zerbait aurkitzen baldin badute. Gomendioak ere emango dituzte tortura eta tratu txarrak prebenitzeko moduei buruz eta beharrezkoa izanez gero formazioa ere eskaini egingo da (Pérez Machío, 2009, 209 or.).

2.3.c. Espainiar estatuaren lege-testuingurua

Espainiar legee dagokienez garrantzia handia duten hiru arau aipatu daitezke: Espainiar Konstituzioa, Zigor Kodea eta Prozedura Kriminaleko Legea. 1978ko Espainiako Konstituzioko 15. artikuluan jasotzen da torturaren debekua. Debeku hau Konstituzioan jasota egoteak garrantzia handia dauka, izan ere, Espainiar Estatuaren lege gorenaren da eta bertan ezartzen dena errespetatu behar da. Artikuluak zera dio:

15. artikulua

“Denek dute bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta inori ezin pairaraziko zaio, ezein kasutan, ez torturarik, ez gizatasunaren edo duintasunaren kontrako zigor edo traturik. Ezeztatzen da heriotza zigorra, non eta lege penal militarrek ez duten besterik xedatzen gerra denborarako”.

Gainera, lege honetan duen kokapenari esker oinarrizko eskubideen barruan sartzen da eta babeserako berme osoak dauzka. Ezin izango da suspenditu eta inkonstituzionaltasun errekurtsua eta babes eskeko helegitea aurkezteko aukera egongo da. Artikuluan ikusi daiteke “ezein kasutan” debekatu egiten dela tortura eta tratu txarren erabilera. Beraz, torturaren erauzpen absolutua ezartzen da, gudak eta beste motako egoera berezietan salbuespenak debekatuz (De la Cuesta Arzamendi, 1998, 60 or.). Hala ere, ez da torturaren definiziorik ematen, eta ez da zehazten ezta ere zein printzipio jarraitu beharko diren tortura eta tratu txarren arteko bereizketa egiteko.

Torturaren debekua ez da soilik Konstituzioan aipatzen, baizik eta Zuzenbide penalean ere bere lekua daukala. Torturaren definizioa ikusterakoan aipatzen da zuzenbide penalean delitu honen lehen agerraldia 1973ko Zigor Kodean eman zela. Baina 204 bis artikulua honetan ez zen tortura hitza erabiltzen. Funtzionarioek burutu ezin zuten portaera ankerrak eta indarkeriazkoak azaltzen ziren bertan, baina hauen izaera kontuan izanda tortura delitutzat hartu zitezkeen nahiz eta espreski ez adierazi (De la Cuesta Arzamendi, 1998, 62 or.).

1995eko Zigor Kode berriarekin torturaren delitu autonomia sortu zen, eta honetan bai torturatzat definitzen da. Delitu hau 174. artikuluan jasotzen da eta, oinarri kontzeptualaren atalean azaldu den bezala, torturaren definizioa ezartzen da. Definizioa 1984ko hitzarmena eredu izanda burutu zen, eta beraz, tortura kontsideratzen da: agintari edo funtzionario publikoak, bere karguaz abusatuz eta pertsona baten aitortza edo informazioa lortzeko, pertsona horri kalte fisikoak edo moralak eragiten dioten teknikak erabiltzea (Pérez Machío, 2009, 212 or.).

Baina definizioa ezartzeaz gain, delitu honen zigorra ere jasotzen da Kode Penalean. 174. artikuluan jasotako zigorrak honakoak dira: bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ekintzak larriak baldin badira; eta larriak ez baldin badira urte batetik hiru artekoa. Espetxe zigorraz gain erabateko desgaiakuntza ere ezarriko zaie, zortzi urtetik hamabi artekoa (Pérez Machío, 2009, 213 or.). Hala ere, aurreko atalean aipatu den bezala, nahiz eta zigorrak ezarri ez da larritasuna interpretatzeko irizpiderik

ematen. Ondorioz, jurisprudenziara jo beharko da tortura kasu baten aurrean aurkitzerakoan, larritasun hau zehazteko eta zigor egokia ezarri ahal izateko.

Ikusi daiteke Espainiar Estatua modu egokian jarraitzen dituela torturaren aurka sinatutako hitzarmenak, hauek berretsiz eta debeku absolutua ezarriz. Gainera delitu honen subjektu aktiboarekiko bateragarriak eta egokiak diren neurriak ezartzen dira, izan ere, espetxe zigorra ezartzen baldin bada, baina adibidez, bere kargua mantentzea uzten baldin bazaio ez litzateke arazorik konponduko (Pérez Machío, 2009, 217 or.). Hala ere, badauzka oraindik zuzendu beharreko elementu batzuk tortura erroitik guztiz kentzeko. Adibidez, Prozedura Kriminalaren Legean agertzen diren inkomunikazio epeak eta terrorismoaren kasuetan atxilotuaren eskubideak murrizteko baimena, zeinak tortura eta tratu txarren agerpena erraztu egiten duten.

Prozedura Kriminalaren Legea 1882ko irailaren 14an indarrean sartu zen. Honen bidez sistema penalean erabili beharreko prozedura erregulatzen da; baina torturaren inguruan garrantzia nagusia duen eta bertan erregulatzen den gaia inkomunikazioa da. Neurri hau legearen 509, 520 bis eta 527. artikuluetan arautzen da (Morentin, Landa, & Urmeneta, 2014, 24 or.). Esan bezala, inkomunikazioaren bidez terrorismo delituak burutu dituzten pertsonak eskubideen murrizketak pairatuko dituzte. Murrizketak 527. artikuluan aipatzen dira eta honakoak izango dira: alde batetik, bere abokatua ofizioz aukeratua izango da, beraz, ez du konfiantzazko abokatu bat izateko eskubiderik izango; beste aldetik, bere familia ez da bere atxilotetaz abisatua izango, eta ezta ere lekualdaketei buruz. Azkenik, ez du abokatuarekin elkartzeko eskubiderik izango eginbideen azterketa ondoren.

Inkomunikazioaren iraupena bost egunekoa izango da, nahiz eta beste bost eguneko luzapena eskatu daitekeen. Behin presoak komunikazio erregimenean jartzen denean, epaileak beste hiru eguneko inkomunikazioa ezarri dezake. Beraz, neurri honen iraupena 13 egunekoa izango da (Morentin, Landa, & Urmeneta, 2014, 24 or.). Ulertu daiteke, beraz, nazioarteko erakundeek kezka inkomunikazioaren inguruan, eta muga hau txikitzeko eskaeren zergatia; izan ere, tortura gehienak inkomunikazio erregimenean gertatzen dira ikerketen arabera (Morentin, Landa, & Urmeneta, 2014, 32.or.).

| Torturaren azterketarako erabilitako legeak | | |
|--|---|--|
| Nazioarteko mailan | | |
| Legeak | Data | Artikulua |
| Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala | 1948ko abenduaren 10ean | 5. artikulua: “Ezin daiteke inor torturatu ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere” |
| Eskubide Politiko eta Sozialen Nazioarteko Ituna | 1966ko abenduaren 16an | 7. artikulua: “Inork ez du torturarik pairatuko, ezta tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrikerik ere” |
| Tortura eta beste tratu edo zigor krudel, anker eta Apalesgarrietatik pertsona guztiak babesteari buruzko deklarazioa | 1975eko abenduaren 9an | Artículo 3. “Ningún Estado permitirá o tolerará...” |
| Presoen tratamendurako gutxienerako arauak | 1955ean Nazio Batuek onartu, baino 1977an arau gehiago sartu ziren | |
| Torturaren eta beste Tratu edo Zigor Krudel, Anker eta Apalesgarrien kontrako hitzarmena | 1984ko abenduaren 10ean | 3. artikulua: “Ningún Estado permitirá o tolerará tortura u otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes. No podrán invocarse circunstancias excepcionales tales como estado de guerra o amenaza de guerra, inestabilidad política interna o cualquier otra emergencia pública como justificación de la tortura u otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes”. |
| Europa mailan | | |
| Legea | Data | Artikulua |
| Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen babeserako Europako hitzarmena. | 1950eko azaroaren 4an | 3. artikulua: “Nadie podrá ser sometido a tortura ni a penas o tratos inhumanos o degradantes” |
| Torturaren eta beste tratu edo zigor krudel, anker eta apalesgarrien prebentziorako europar hitzarmena | 1987ko azaroaren 26an | |
| Estatu mailan | | |
| Legea | Data | Artikulua |
| Prozedura Kriminalaren Legea | 1882ko irailaren 14an (509. artikulua 13/2003 LOaren 1. artikulurekin aldatu zen, eta aurrerago 15/2003 LOaren azken xedapenaren 1.1.h) | 509. artikulua: “1. Instrukzio-epaileak edo auzitegiak salbuespenez erabaki ahal izango du ikertutako egitateetan ustez esku hartu duten pertsonen atxiloketa edo espetxealdi |

| | | |
|--------------------------------|------------------------|--|
| | atalarekin) | inkomunikatua, betiere horiek justiziaren eskutik ihes egin ez dezaten, pertsona horiek biktimaren ondasun juridikoen aurka jardun ez dezaten, delituarekin zerikusia duten frogak ezkuta, alda edo suntsi ez daitezen, edota beste delitu-egitate batzuk egitea saihets dadin. 2. Aurreko paragrafoan aipatu arriskuak saihesteko, presa-eginbideak gauzatu behar direnez gero, horiek egiteko behar den denbora bakarrik iraungo du inkomunikazioak. Inkomunikazioa ezin izango da izan bost egunekoa baino luzeagoa. Espetxeratzea auzian erabaki bada 384bis artikuluan aipatutako delituetatik baten ondorioz, edo bi pertsonak edo gehiagok elkarrekin hitzartutako edo modu antolatuan egindako delituen ondorioz; inkomunikazioa beste epe batez luzatu ahal izango da; epe hori ezin da izan bost egunekoa baino luzeagoa. Hala ere, kasu horietan berorietan, auziaren gaineko ardura duen epaile edo auzitegiak presoak berriro ere inkomunikatzeko agindua eman ahal izango du, hura komunikazioan jarri eta gero ere, baldin eta, ikerketaren edo auziaren osteko garapena dela eta, horretarako arrazoiak badira izan. Bigarren inkomunikazio hori ez da inoiz ere izango hiru egunekoa baino luzeagoa. 3. Inkomunikazioa, edo, hala denean, horren luzapena erabakitzen duen autoan adierazi beharko dira neurri hori hartzeko zioak. |
| Espainiako Konstituzioa | 1978ko urriaren 31n | 15. artikulua: “Pertsona guztiek bizitza eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea dute, eta inoiz ezin dira meneratu torturetara ez eta zigor edo tratu ez gizakor edo itsusietara” |
| Zigor Kodea | 1995eko azaroaren 23an | 174. artikulua: “Agintari edo funtzionario publikoak tortura |

| | | |
|--|--|---|
| | | <p>egiten du, bere karguaz abusatuz, pertsona baten aitortza edo informazioa lortzeko helburuarekin edo pertsona horrek gauzatu duen edo gauzatu duela susmatzen den egitatearengatik zigortzeko helburuarekin, pertsonari baldintzak edo prozedurak ezartzen dizkionean, beren izaera, iraupena edo bestelako inguruabarren ondorioz, gorputzeko edo buruko sufrimenduak eragiten dizkietenak, ezagutu, bereizi edo erabakitzeko ahalmenak ezabatu edo gutxitzen dizkietenak, edo beste edozein modutan pertsonaren osotasun moralaren aurka atentatu egiten dutenak. Torturaren errudunari bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio atentatua larria bada; bestela, urtebetetik hiru artekoa. Edozein kasutan, adierazitako zigorrez gain, erabateko desgaitasuna zigorra ezarriko zaio, zortzi urtetik hamabi artekoa”.</p> |
|--|--|---|

3. Torturaren azalpena kriminologiaren teoriaren ikuspuntutik

Aurreko atalean historian eta legeetan zehar torturari emandako definizioa, trataera eta prebentzio moduak ikusi dira. Baina lan honen hasieran adierazi den bezala tortura ere alderdi soziala du, eta kriminologiaren ikuspuntutik honen zergatia eta prebentzioa azaltzeko beharrezkoa da teoria kriminologikoei buruz hitz egitea. Lanaren atal honetan kriminologian erabilitako hainbat teoria landuko dira. Honen helburua delituari kriminologiaren ikuspuntutik ematen zaizkion azalpenak aztertzea da, torturaren erabileraren zergatia eta prebentzio moduak ulertzen saiatzeko. Nahiz eta kriminologian teoria asko existitu, tortura azaltzeko lagungarrienak izan daitezkeenak aztertu dira. Azkenik, teoria hauek torturaren delitura aplikatuko dira, batean kokatu ahal izateko.

Aukeratutako sei teoriak honakoak dira: Eskola klasikoa, eskola positibista, elkartze diferentziala, teoria funtzionalak, kontrolaren teoriak eta gatazkaren teoriak. Eskola klasikoa eta positibista kriminologiaren lehenengo teoriak izanik, garrantzitsua

da horiek aipatzea, berriagoak diren teoriekin konparatu ahal izateko. Hauek delituaren erabilgarritasunaren teorian eta delituaren kausetan arreta jartzen dute, delitua prebenitzeko hainbat metodo proposatuz. Beste aldetik, aztertuko diren beste lau teoriak oinarri soziologikoagoa dute, kontuan izanda tortura gizartearen kulturatik eta ohituretatik sortzen den delitua dela (Zúñiga Rodríguez, 2007, 880 or.).

3.1. Eskola klasikoa


Eskola klasikoa XVIII. mendean sortu zen, garai horretako bidegabekeriaren eta botere abusuen kontrako doktrina iraultzailea bezala aurkeztuz (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 178 or.). Teoria honek krimena legearen urraketa bezala hartzen du, hau da, delituari arrazoia ematen diona legearen urraketa izango da, kontuan izan gabe delitugilearen ezaugarriak edo ingurugiroa delitua ulertzeko (García-Pablos de Molina, 2013, 279 or.). Ilustrazioaren ideien garaian, teoria hau bultzatu zutenen artean bi autore garrantzitsu aipatu daitezke: Cesare Beccaria eta Jeremy Bentham. Bi pentsalari hauen ideiak oso zabalduak izan ziren ilustrazioaren garaian eta praktikan jartzeko aukera handiak izan zituzten iraultza Frantsesa eta Ipar-amerikarra piztu zirenean (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 177 or.).

Beccaria bere liburuan “*De los delitos y de las penas*” jasotako ideiekin gizartea hunkitu zuen. Bertan jaso egiten ziren boterearen abusuarekin amaitzeko jarraitu beharreko pausoak. Autore honek kontratu sozialaren⁴ ideia jarraituz, legaltasun printzipioa oinarritu egiten du. Izan ere, garai horretan zegoen ziurgabetasunari aurre egiteko beharrezkoa zen legeak ezartzea zein portaera ziren delitu eta zeintzuk ez, askatasuna noraino iristen zen jakiteko (García-Pablos de Molina, 2009, 310 or.). Honetaz gain, idei bera jarraituz, zigorren proportzionaltasun printzipioa eta erabilgarritasuna ere proposatu zituen. Beharrezkoa da autore honen arabera zigorrak erabilera bat izatea, ez duelako zentzurik gizarteak bere askatasunari uko egitea ezertarako balio ez duen zigorra onartzeagatik (García-Pablos de Molina, 2009, 311 or.).

Eskola klasikoaren bigarren autore esanguratsua Jeremy Bentham izan zen. Autore honek zigorraren erabilgarritasunaren teoria indarrez bultzatu zuen. Honen

⁴ Kontratu sozialaren bidez gizartea legeak onartzen ditu, bere askatasunaren zati bati uko eginez, guztien ongizatea lortzeko.

arabera minak eta atseginak giza portaera kontrolatu egiten dute. Delitugileak delitua burutzerakoan neurketa bat egingo du lortu nahi duenaren plazerraren eta ordaindu beharrekoaren artean (García-Pablos de Molina, 2009, 328 or.). Hala ere, nahiz eta presoen beharrak eta eskubideak eta zigorren proportzionaltasuna bultzatu, zigorrari buruz daukan ideia prebentzio orokorrarekin erlazionatuta dago. Hau da, zigorrak delituaren prebentziorako erabiltzea bultzatzen du, plazerraren gutxitzea bilatuz (larderia erabiliz) (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 182 or.). Autore honek eragin handia izan zuen arlo penitentiarioan panoptikoaren ideiarekin. Honen bidez, zaindaria espetxearen erdian kokatzen da zelda guztiak begi-bistan dituela, baina bera ezin da ikusia ezta entzuna izan. Modu honetan, presoak ez dakite zelatatzen ari diren ala ez, eta ondorioz haien buruaren zaindariatari bihurtzen dira (García-Pablos de Molina, 2009, 328 or.).



1. irudia. Panoptiko ideaiaren diagrama.

Laburbilduz, eskola klasikoaren ideiak lau puntutan adierazi daitezke: alde batetik, erabilgarritasun printzipioa bultzatzen da, zeinaren bidez giza portaera plazerra lortzera eta mina ekiditera zuzentzen den. Beraz, delitua, hau sortarazten duen plazerra edo sariaren ondorioz burutzen da beti; beste aldetik, pertsona guztiak gaitasuna dute haien portaeraren gainean erabakitzeke, eta beraz, delitua burutu ala ez erabakiko dute ongizate eta galerak neurtu ondoren, haien borondatea hura izanda. Azkenik, zigorraren helburua aipatu daiteke, honek delituaren bidez lortzen den plazerra gutxitzeko helburua izango du eta ondorioz, delituak ekartzen duen ongizatea baino kalte handiagoa ekarriko du (proportzionaltasuna mantenduz). Modu honetan bi helburu lortu nahi dira: prebentzio orokorra, hau da, gizartea arrazoiak izatea deliturik ez burutzeko; eta

prebentzio berezia, delitugileari zuzentzen dena berriz deliturik ez burutzeko (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 184 or.).

Esan beharra dago herrialde gehiengoen gaur egungo sistema penala oinarritutako disuasio teoriak eskola klasikoan duela jatorria. Delituak zehazten dituzten legeak ezartzen dira eta, hauek ez burutzeko disuasio modu bezala, delitua burutzen duenari zigorra ezartzen zaio (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 184-185 orr.).

3.2. Eskola positibista

Kriminologiaren finkatzeak zientzia enpirikoa bezala eskola positibistaren sorrerarekin oso erlazio estua dauka. Eskola hau XIX. mendean sortu zen eskola klasikoari aurka egiteko asmoarekin (García-Pablos de Molina, 2009, 365 or.). Positibismoaren sorrerarekin eskolen arteko gatazka hasi zen, zehazki, metodo eta paradigmaren arteko gatazkak (García-Pablos de Molina, 2013, 292 or.). Delituaren analisisian aldaketa gertatu zen: eskola klasikoak sistema penalaren irrazionaltasunaren aurka borroka egiten zuen bitartean, eskola positibistak delituaren kausen kontra borroka egiten zuen, metodo zientifikoa erabiliz (García-Pablos de Molina, 2009, 365 or.). Eskola klasikoan ez bezala, positibismoan, zuzenbide penala bigarren maila batean kokatzen da, honen eragina zalantzan jartzen baita. Izan ere, zuzenbidearen bidez ezin da aldatu, adibidez, biologikoki ezarrita dagoena (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006).

Teoria honen arabera delituaren sorrera eta desagerpena ez dauka zer ikusirik zuzenbideak ezartzen dituen zigorrekin, baizik eta bere kausa propioak dituela. Ondorioz, delituaren prebentziorako eraginkorragoa izango da errealitate sozialean eragina duten neurriak ezartzea, espetxe zigorrek baino (García-Pablos de Molina, 2009, 372 or.). Kriminologia positibistaren autore esanguratsuenak Césare Lombroso (1835-1909), Enrico Ferri (1856-1929) eta Raffaele Garofalo (1852-1934) izan ziren (García-Pablos de Molina, 2009, 367 or.).

Césare Lombroso kriminologia modernoaren aitatzat hartzen da. Bere ekarpen nagusia zientzia naturaletan (biologia, medikuntza, fisika...) erabiltzen ziren metodoak delinkuentziaren azterketan erabiltzearena izan zen (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 258 or.). Lombrosoren teoriak antropobiologikoak izan ziren bere hasieran, nahiz eta geroago eboluzionatu. Autore honen arabera, delitugileak beste pertsonetatik bereiztu egiten dira jatorri atabiko edo endekapenezkoa duten anormaltasun eta

estigmengatik. Beraz, delitugileak pertsona arruntak baino gutxiago izango dira, gaixotasuna dutenak eta eboluzionatu ez dutenak, hau da, gizaki primitiboak (García-Pablos de Molina, 2009, 377 or.).

Bere teoriak formulatzeko analisi ugari egin zituen, izan ere, bere teoria formulatu baino lehen delitugileen 400 autopsia burutu zituen eta bizirik zeuden 6000 delitugile behatu zituen. Horretaz gain, delitugilearen jatorri atabikoa frogatzeko Europako hainbat espetxeen 25000 presoekin ikerketa bat burutu zuen (García-Pablos de Molina, 2009, 387 or.). Honen bidez ikusi zuen espetxeetako delitugileek pertsona arruntek ez zeuzkaten ezaugarri biologikok zeuzkatela, horien artean kopeta txikiagoa, garezurra txikiagoa eta hezur-malar handiagoa. Honen ondorioz, delitugile atabikoaren edo jaiotako delitugilearen teoria azaltzen du, zeinaren arabera, delitugileek antzinako gizakien herentzia jasotzerakoan atabismoa pairatzen dute, eta ondorioz portaera deliktiboak burutzen dituzte (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 260 or.).

Enrico Ferri Lombrosoren teoriak garatu egin zituen, baina ez zituen bere osotasunean bereganatu; izan ere, garrantzia gehiago eman zien delituaren sorkuntzan elementu politiko, sozial eta ekonomikoei (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 261 or.). Ferrirentzak delitua anomalia biologiko, fisiko eta sozialaren ondorioa zen. Autore honen arabera, delinkuentziak dinamika propioa du eta estatistika kriminalak erakusten duen bezala dinamika hori ez dauka erlazioa juristek ezarritako legeekin, baizik eta gizartearen hainbat ezaugarriekin (sexua, adina, arraza, ekonomia...) (García-Pablos de Molina, 2009, 397 or.).

Biologiaren eragina ere jarraitzen du, defendatuz delitugile batzuk delitugile izateko jaiotako izateko jaioak izan zirela eta, beraz, beste pertsonetatik bereizten zituzten ezaugarriak zituztela. Kriminologiari egindako ekarpen nagusienetariko bat, Lombroso bezala, delitugileen kategoria bat burutzea izan zen (1. laukia), non adierazten ziren ezaugarri biologikoak zituzten delitugileak eta ezaugarri hauek ez zituztenak (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 261 or.). Delituarekin amaitzeko zuzenbidea aplikatzearekin soilik nahikoa ez dela adierazten du, baizik eta aldaketa politiko, sozial eta ekonomikoak bultzatu behar direla; delituaren oinarri soziologikoaren eraldaketa emanez delinkuentzia prebenitzeko (García-Pablos de Molina, 2013, 304 or.).

Azkenik, Lombrosoren beste jarraitzailea Raffaele Garofalo izan zen. Autore honen delinkuentziaren teoria Lombrosoren antropobiologiatik eta Ferriren soziologiatik baztertu, eta anomalia psikiko edo moraletan oinarritzen da. Honen arabera, anomalia morala ez da gaixotasun psikologiko arrunta izango, baizik eta

aldaketa psikikoa, zeina heredatu egiten den eta gutxiagotasuneko arrazetan, gizarte modernoetan baino gehiago agertuko dena (García-Pablos de Molina, 2013, 306-307 orr.). Gizartearen babesak bilatzen du eta delitugilerik gabeko gizarte baten aldekoa da. Ez du prebentzioa babesten eta delinkuentziarekin amaitzeko arraza kriminalaren amaiera proposatzen du, hauek bizitza osorako espetxeratzuz edo akatuz (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 262 or.).

| LOMBROSO | FERRI | GAROFALO |
|----------------------|---------------------------------------|---------------------------|
| Delitugile atabikoa | Delitugile natoa | Hiltzailea |
| Ero morala | Delitugile eroa | Indarkeriazko delitugilea |
| Epileptikoa | Pasiozko delitugilea | Lapurra |
| Eroa | Delitugile ez-ohikoa | Lizunkoia |
| Ez-ohikoa | Ohiko delitugilea | |
| Pasiozko delitugilea | Zuhurtzigabekeriagatikoko delitugilea | |

1. taula. Lombroso, Ferri eta Garofalo autoreen delitugileen sailkapena.

Teoria honekin amaitzeko, positibismoaren supostuen laburpena egitea beharrezkoa da. Epigrafe honetan ikusi den bezala, eskola positibista delitua gertaera naturala eta egiazkotzat jotzen dute eskola klasikoaren abstraktismoa baztertuz; beste aldetik, kaltegarritasuna ez da zuzenbide-kontrakotasunarekin lotzen, baizik eta bizitzan sozialean emandako egoerekin. Gainera, eskola klasikoarekin konparatuta, positibistek delituaren azterketa delitugilearekin eta errealitate sozialarekin burutzen dute. Baina positibismoaren alderdi esanguratsuena delituaren kausen identifikazioaren azterketa da (García-Pablos de Molina, 2013, 297 or.). Hala ere, gorago ikusi den bezala, autore positibistak kontrajarri egiten dira haien ideietan, izan ere, delitugileak natoak direla adierazten dute, baino, aldi berean, delitugile guztiak natoak ez direla.

3.3. Elkartze diferentziala

Elkartze diferentzialaren teoria Sutherland autoreak proposatu egiten du (García-Pablos de Molina, 2013, 506 or.). Teoria honen arabera portaera deliktiboa ezin da azaldu moldatu gabeko maila baxuko pertsonen portaeraren bidez, baizik eta balore

kriminalen ikasketaren ondorioa bezala. Hau da, delinkuentzia pobreziaren faktoreagatik baino gehiago gertatzen da eta ezin da baztertu pertsonaren bizitza esperientzia ekintza deliktiboetatik. Delitua ez da heredatzen edo imitatzen, baizik eta komunikazio eta interakzioko prozesu arrunten bidez jarrera eta balore kriminalak ikasi egiten direla, eta hauek edozein pertsonak ikasi dezake edo edozein kulturaren eman (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 357 or.).

Sutherlandek delinkuentzia Chicagoko eskolak sortutako elkarreragin sinbolikoaren bidez azaldu egiten du. Honen arabera pertsona bakoitzak bere esperientzietan oinarrituta gauzei definizio bat ezartzen diote, eta modu honetan haien ikuspuntu orokorra sortu egiten dute. Beraz, nahiz eta objektua edo egoera berdina izan pertsona bakoitzarentzat esanahi bat izango du eta ondorioz egoera berdinarean aurrean pertsona batzuk delitua burutuko dute eta beste batzuk ez (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 358 or.). Beraz, delinkuentzia gertuko taldeen komunikazioaren bidez ikasi egiten den portaera bat da, hauen bidez definizioak ezartzen direlako. Ingurugiroa deliktiboa baldin bada definizio horiek delinkuentzia onartzera zuzenduko dira (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 360 or.).

Eskola klasikoarekin alderatuta, Sutherland ez du atsegina eta minaren teoria defendatzen. Pertsona guztiak pozik bizi nahi dira eta estatus altua izan, eta beraz, ezin dira bereiztu delitugileak eta pertsona arruntak plazerraren edo estatusaren nahiaren ezaugarri orokorraren bidez (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 361 or.). Positibismoa ere alderatzen du, delinkuentzia ikasi egiten dela esaterakoan eta ez jaiotzetik gertatzen dela. Beste aldetik, Chicagoko eskolak proposatutako gizarte desantolakuntzaren terminoa erakunde sozial diferentzialagatik ordezkatzeko proposatzen du. Bere ustetan delinkuentzia ez da gizarte desantolakuntzagatik gertatzen, baizik eta portaera delitugileetara edo ez delitugileetara zuzentzen diren gizarte erakundeen existentziagatik. Beraz, delitua emateko arrisku gehiago egongo da asoziazio taldea delinkuentziara zuzentzen baldin bada (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 362 or.).

3.4. Teoria funtzionalak

Teoria hauen arabera delitua fenomeno sozial, funtzional eta arrunta da, edozein gizarte osasuntsuan neurri batean existitu beharrekoa (García-Pablos de Molina, Tratado de criminología, 2009, 715 or.). Teoria hauetan garrantzi handia hartu zuen terminoa

anomiarena izan zen. Anomiak bere zentzu etimologikoan arauen falta esan nahi du, eta autore funtzionalistek gizartearen garapen, egitura eta organizazioarekin erlazionatu egin zuten. Teoria hauen ordezkari esanguratsuenak Emile Durkheim eta Robert Merton izan daitezke (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 231 or.).

Durheimentzako delitu tasa bat arrunta izango da delitua gehiengoaren gizarteak ezarritako arauen urraketa den heinean. Hau da, gizartea barne kohesioa mantentzeko arauak ezarriko ditu eta, beraz, gehiengoak onartutako arauetatik baztertzen diren portaerak desbideratuak kontsideratuko dira. Beraz, zigorra ere paper garrantzitsua jokatu du autore honen teorian; izan ere, delinkuentzia gizartearen barne kohesioa indartzen baldin badu, zigorraren bidez delituak burutzen ez dituzten pertsonen jarrera premiatu eta indartu egingo da sistemarekiko konfiantza mantenduz (García-Pablos de Molina, 2009, 718-719 orr.). Baina gizartearen aldaketa azkarraren ondorioz arau hauen eta balore sozialen eraginkortasuna galdu egiten da, kontzientzia kolektiboa galduz. Durheimek anomia bidez azaldu egiten du aldaketa eta baloreen galera hura (García-Pablos de Molina, 2013, 479 or.).

Mertonen arabera anomia gizartean gertatzen den baloreen aldaketa azkarraren ondorioz pertsonak haien portaera gidatzeko balorerik gabe geratzearen prozesua izango da (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 232 or.). Beraz, gizarteak ezarritako baloreak lortzeko legitimoak ez diren bideak erabiltzen dira, desbiderazioa sortuz. Gauzak horrela ikusita kontsideratu daiteke Mertonentzako anomia arazo gizarte baloreen eta hauek lortzeko medioen arteko desadostasunean egongo zela. Gizarteak medio hauek pertsona guztientzako neurri berdinean ez banatzerakoan, baztertutako pertsonak bide ez legitimoak bilatuko dituzte balore horiek lortzeko (García-Pablos de Molina, 2009, 722 or.). Autore honek bost bide aurreikusi zituen gizarteak ezarritako baloreetara iristeko (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 234 or.):

- **Adostasuna:** Gizartearen gehiengoaren erantzuna da. Bide hau hartzen duen pertsonak onartzen ditu gizarteak ezarritako baloreak eta hauetara iristeko bideak, nahiz eta helburu gorenetara inoiz ez iritsi.
- **Berrikuntza:** Erantzun hau ematen duen pertsonak gizartearen baloreak onartu egiten ditu, baina ez horiek lortzeko bideak. Helburu hauek lortzeko bide berriak bilatuko ditu eta kasu askotan legearen aurkako erantzunak izango dira.
- **Erritualismoa:** Kasu honetan ez dira helburu sozialak jarraitzen, baina bideak onartzen dira. Hau da, ez daukate bizitza hobea edo diru gehiago izateko desiorik, bere bizitza arruntarekin jarraitzen dute bide berriak bilatu gabe.

- **Baztertzea:** Erantzun honetan ez dira ez helburu sozialak ez bideak onartzen, baina horren aurka borroka egin beharrean gizartetik baztertzen da. Kasu honen adibide egokiena etxebizitza gabeko pertsonak izango ziren.
- **Matxinada:** Azkenengo suposizio honetan ez dira ez helburuak ez bideak onartzen, baina baztertzean ez bezala, horren aurka borrokatzen da. Gizartearen eraldaketa sortzea bilatzen da kasu hauetan.

| | Gizarte baloreak | Bideak |
|----------------------|------------------|----------------|
| Adostasuna | + | + |
| Berrikuntza | + | - |
| Erritualismoa | - | + |
| Baztertzea | - | - |
| Matxinada | - (eraldaketa) | - (eraldaketa) |

2. taula. Merton proposatutako bost bideak.

3.5. Kontrolaren teoriak

Orain arte ikusitako teoriak delinkuentzia bultzatzen duten arrazoiak azaltzen saiatzen dira. Kontrolaren teoriak berriz, pertsona bat legeak errespetatzera bultzatzen duten faktoreak aztertu egiten ditu delitua azaltzeko (García-Pablos de Molina, 2009, 781 or.). Teoria hauen arabera pertsonak delitua baztertu egiten dute arauak errespetatzeko interesa daukalako, haiek urratuz gero kalteak handiegiak izango zirelako (García-Pablos de Molina, 2013, 515 or.).

Kontrolaren teorien artean Travis Hirschi autorearena azpimarratu beharra dago. Honen Finkatze sozialaren teoriaren arabera ekintza deliktiboetatik baztertuta mantentzeko beharrezkoa da gizartean ondo gizarteratua dauden harremanekin kontaktua izatea. Beraz, delinkuentzia emango da delitu horiek ez burutzeko beharrezkoak diren harreman sozial eta arauen galera edo gabeziaren ondorioz (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 222-223 orr.). Hau horrela izanda, eraginkorragoak izango dira delituek prebenitzeko berehala ezarritako zigorrak (lagunen errefusapena adibidez) espetxea eta beste zigor penalak baino. Teoria honen arabera lau dira finkatze soziala ezartzen duten elementuak (García-Pablos de Molina, 2009, 782-783 orr.):

- **Atxikimendua:** Beste pertsonekin ezartzen diren harremani erreferentzia egiten die. Atxikimendu hori delituak burutzen ez dituzten pertsonenganakoa baldin bada delinkuentziara zuzentzeko arrisku txikiagoa egongo zen. Baina beste pertsonenganako atxikimendua txikia baldin bada gizarteratzea ez da ondo emango eta ondorioz oztopo gutxiago egongo dira delituak burutzeko (García-Pablos de Molina, 2009, 782 or.).
- **Konpromisoa:** Gizartea bizitza aurrera eraman ahal izateko ohiko baloreak bereganatu egiten ditu, eta zenbat eta balore horiek garrantzitsuagoak edo pisutsuagoak izan orduan eta aukera gutxiago egongo dira delituak burutzeko. Hau horrela izango da ohiko baloreak gizartearekiko konpromisoa direlako eta beraz, delitua burutuz gero, konpromiso horren bidez lortutako harremanak, lorpenak edota lortutako egoera galdu egingo ziren (García-Pablos de Molina, 2009, 782 or.).
- **Parte hartzea:** Gizartea osatzen duten ekintza ohikoetan parte hartuz gero delinkuentzia burutzeko arriskua txikiagoa izango da. Ekintza hauen bidez ohiko baloreak ikasi egiten dira eta beraz, zenbat eta handiagoa izan parte hartze hau txikiagoa izango da delinkuentziaren presentzia (García-Pablos de Molina, 2009, 782 or.).
- **Sinesmenak:** Pertsona baten sinesmenak zehaztu egiten dute delituak burutzeko dauzkan aukerak. Hau da, bere sinesmenak ohiko baloreekin bat egiten badute edo beste pertsona batzuekin balore moralak partekatzen baldin baditu delituak burutzeko arriskua txikiagoa izango da (García-Pablos de Molina, 2009, 783 or.).

3.6. Gatazken teoriak

Epigrafe honetan gatazkaren teoriak landuko dira. Teoria hauen arabera gizartean bestelako pentsamendu duten taldeak existitzen dira, eta hauek ados ez jartzerakoan delinkuentzia sortzen da (García-Pablos de Molina, 2013, 486 or.). Gatazka teorien printzipioek dioten bezala, gizarte ordena taldeen arteko gatazkan egongo da eta ez adostasunean. Gatazka ez da patologikoa eta gizarte guztietan aurkitu beharreko elementua da, hauek gizarte konplexuak diren bitartean. Funtzionala izango da baita ere, gizartearen aldaketa positiboa bultzatzen duelako. Zuzenbideari dagokionez, gatazken teorien arabera, boterea duten maila sozialen interesak defendatzen duen sistema izango da. Giza kontrolaren funtzioa beteko du baita ere,

baina aipatu den bezala, maila altuko pertsonen interesak babesteko sortutako legeen bidez egingo da. Beraz, zuzenbidea klaseen arteko desberdintasunak areagotu egingo ditu, eta botere desberdintasun horren ondorioz desbiderazioa sortuko da (García-Pablos de Molina, 2009, 828 or.).

Bi gatazka mota azaldu daitezke lan honetan: kulturala eta soziala. Gatazka kulturalen teoretan kriminaltasuna aldaketa sozialaren ondorio da, eta faktore kriminogenoa taldeko kulturaren kontradikzioa izango litzateke. Gizartean hainbat talde egoterakoan, portaera eta kontrako arauak sortzen dira, eta horren ondorioz gatazka dator (García-Pablos de Molina, 2013, 486-487 orr.). Gatazka sozialen teorientzako gizartea gero eta talde gehiago dauzka, eta horren ondorioz arazoak sortzen dira talde hauek gizartean haien lekua bilatzen dutenean. Vold autorearen arabera, pertsonak taldeko gizakiak dira, eta pertsona bakoitza bere intereseko taldea izango du, hainbat elkarte sortuz. Talde hauen interesak kontrajarri egiten dira eta gatazka sortzen da haien egoera mantentzen edo hobetzen saiatzerakoan (García-Pablos de Molina, 2009, 834 or.).

3.8. Teoria kriminologikoen aplikazioa torturaren delitura

Hirugarren puntu honetan zehar teoria kriminologiko batzuk ikustea posiblea izan da. Puntu honetako azkenengo epigrafearen bidez lortu nahi dena azaldutako teoria horiek torturaren delitura nola aplikatu daitezkeen ikustea izango da.

Teoria klasikoei dagokienez honako planteamendua lortuko zen: Torturatzaila pertsona arrunta da eta bere borondateagatik burutu egiten du torturaren portaera. Jarrera hau erabilgarritasuna du berarentzat, honen bidez aitorpen bat lortzen duelako bere lana aurrera eramateko. Legeak portaera hau zigortu egiten duenez delitua burutzen arituko ziren, lege urraketa eman delako. Beraz, sistema judiziala lorpen horiek gutxitzeko prebentzioa egin beharko zuen zigor proportzionalak ezarriz.

Lehenengo planteamendu honen arazoa aztertutako azkenengo puntuan dago, hau da, zigorra ezartzean. Izan ere, tortura funtzionarioek burutzen duten delitua baldin bada, eta funtzionario hauek estatuaren agindupean jarduten baldin badute, zein nolako prebentzio ezarri dezake estatuaren agindupean ere lan egiten duen sistema judiziala? Gainera, torturatzailen plazerra aitorpena lortzea dela kontsideratzen baldin bada, ez al da hau baita ere sistema judizialaren helburuetako bat? Hau kontuan izanda, ezin da

esan torturaren delitua lege urraketa soila denik eta irrazionala suertatzen da honen prebentzioa eta kontrola sistema judizialaren eskuetan soilik ustea eskola klasikoa proposatzen duen bezala.

Beste aldetik, teoria positibistak aplikatuz, torturatzailerak gizaki atabikoa izango litzateke eta ondorioz pertsona arruntak baino garapen gutxiagoko gizakiak. Tortura delitua izango da gizartea arriskuan jartzen duelako. Adibidez, Ferri autorearen ideiak kontuan hartzen baldin baditugu, tortura torturatzaileraren ezaugarri indibidualak, ezaugarri sozialak eta faktore fisikoak elkartuz gertatzen den delitua izango zen. Beraz, fenomeno soziala izaterakoan, honen prebentzioa tortura sortarazten duten faktore sozial horietan eragiten duten ekintzen bidez burutu beharko zen. Ondorioztatzen da zuzenbidearen bidez soilik ezinezkoa izango dela tortura delitua gizartetik ezabatzea Ferriren teoriaren arabera.

Elkartze diferentzialaren arabera delitua ikasi egiten den portaera bat da. Beraz, tortura ere ikasi egiten den delitua izango da. Teoria hau aplikatuz, polizian berri sartu den pertsona bat bere inguruan tortura eta indarkeria erabiltzen dela ikusten baldin badu, portaera horiek ikasi egingo ditu, etorkizunean berak ere jarrera horiek erabiliz. Bere esperientziaren arabera egoerari esanahi bat emango dio, eta delitua burutzea erabakiko du. Sutherland autorearen arabera polizia horren esperientzia berdina izan ez duen pertsona batek egoera berdinen aurrean ez zuen portaera berdina izango. Baina poliziaren ingurugiroa indarkeriazkoa izan denez delitua onartu egiten da aitorpen bat lortzeko.

Mertonen anomiararen teoria aplikatuz, torturatzailerak pertsona arrunta izango zen, zeina helburu sozialak bide legitimotik lortzea ezinezkoa dela ikusterakoan bide berriak erabiltzen ditu. Berritzaileen kategorian sartuko ziren beraz. Delitu honen kasuan helburu soziala delitu baten inguruko aitorpena lortzea izango litzateke eta bide arruntak erabiliz (frogen ikerketa edo lekukoen testigantzen analisisa) helburu hori lortzea ezinezkoa egiten zaionez torturaren bide ez legitimoa erabiltzen du.

Kontrolaren teorien arabera, torturaren delitua emango da ekintza ez legalak ez burutzeko beharrezkoak diren harreman sozial eta arauen galera edo gabeziaren ondorioz. Beraz, torturatzailerak beste pertsonekin eta baloreekin harreman estuak ez dituen pertsona izango da. Harreman hauek galtzeko arriskurik ez egoterakoan tortura burutzea errazagoa izango da, ez dituelako galerarik sorraraziko bere ingurugiroan. Honen adibidea ikusi daiteke GAL taldearen partaidea izandako Jose Maria Velazquez Guardia Zibilaren aitortzearen. GAL taldean sartzea proposatzearen arrazoietakoa bat

bere familiarekin egoera txarrean egotea izan zen. Beraz, pertsona hau ez zeukan ezer galtzeko tortura burutzea erabakitzen baldin bazuen (Punto y Hora de Euskal Herria, 1986).

Azkenik gatazkaren teoriak aplikatzen dira. Tortura delituaren kasuan adibide bat jartzeko bi talde bereiztu daitezke: estatuaren agindupean lan egiten duten funtzionarioek eta estatuaren kontrako ideologia duten pertsonak. Bi talde hauen arteko sinesmen eta arauetan kontradikzioa gertatzen denez gatazka sortzen da, eta gatazka horren ondorioz tortura delitua burutzeko arriskua. Funtzionarioek bere lana egikaritzekoan beraien ideak eta haien interes taldea defendatu nahian tortura burutuko dute, kontrako taldearen ideiak urratuz eta haien egoera txartuz.

Argi geratzen da ez dagoela teoria kriminologiko absoluturik torturaren delitua (ezta beste delitu motak) azaltzeko, eta pertsona bakoitzak teoria bat aukeratuko du haien konbentzimenduaren arabera. Gaur egungo teoriak onartzen dute delitua oso konplexua dela teoria bakun baten bidez solik azaltzeko. Delituan sorkuntzan aldagai biologikoak, ingurugirokoak, indibidualak zein sozialak ere parte hartzen dutela onartzen dute eta, ondorioz, teoria kriminologikoak gero eta konplexuagoak dira (García-Pablos de Molina, 2013, 530 or.). Azaldutako teoria bakoitza hainbat elementu esleitzen dizkio delituaren definizioari, baina hauek ez dira guztiz kontrakoak eta, beraz, teoriak integratzea posiblea dela esan daiteke (García-Pablos de Molina, 2013, 531 or.).

Amaitzeko, atal honen hasieran adierazi den bezala, ez da nahikoa eskubideak bermatzea eta lege penalak edo internazionalak sortzea torturarekin amaitzeko. Tortura delituaren atzetik portaera honek baldintzatzen duten harreman sozialak daude. Aurreko epigrafeetan ikusitako teoria gehienak delitua elementu soziala bezala hartzen dute, eta hura prebenitzeko harreman sozialen kontrola eman behar dela adostu egiten dute gehienak. Teoria hauek torturaren delitua aplikatuz ondorioztatu daiteke torturazaila ez dela jaiotzen, baizik eta sortu egiten dela. Hau da, gizarteak eta honetan sortzen diren harremanek sortzen dute torturazaila.

Torturazaila indarkeriazko ideologia bat existitzen denean sortuko da. Indarkeria ideologia honen bidez, terrorismo delituaren bidez estatu demokratikoa probokatu egiten da, estatuko indarren gorputzen ekintzak deslegitimatuz. Modu honetan estatua pertsona hauen kontra indarkeria burutzerakoan autobetetako iragarpena gertatzen da, estatu demokratikoaren autoritarismoa gertatzen delako. Gizartearen betebeharra izan beharko zen funtzionario publikoen ekintzen kontrola eramatea eta

tortura zein tratu txarrak abolitzeko eta prebenitzeko programak bultzatzea (Zúñiga Rodríguez, 2007, 880 or.).

Atal honen teorien bidez ikusi den bezala, tortura gizarte osoari eragiten dion portaera bat da eta, ondorioz, gizarteak bere pentsamendua aldatu behar du delitu hau sistema penaletik desagertzeko. Indar gehien izango duen prebentzioa, beraz, prebentzio informala izango da, nahiz eta formala ere beharrezkoa izango den torturaren abolizio erreala emateko.

4.Tortura ikerketa proiektua 1960-2013

Orain arte ikusitakoaren laburpena eginez honakoa esan daiteke: bigarren puntuan torturaren historia ikusi ahal izan da, eta honetan zehar bere erabilaren aldaketa nolakoa izan den aztertu da. Beste aldetik, delitu honi zein nolako definizioa ematen zaion ikusi ahal izan da baita ere, tortura eta tratu txarren arteko bereizketa ezarriz. Azkenik, torturaren abolizioa, prebentzioa eta debekua ezartzen duten legeak ere aztertu dira, delitu honi buruzko kezka nazioarteko arloan ere garrantzia handia duela ikusiz.

Hirugarren puntuan, berriz, torturaren alderdi soziala ikusi ahal izan da kriminologiaren teorien bidez; eta legeek honen abolizioan izandako eragin txikia ikusita, delitu honen azalpen zientifikoa eta prebentzio motak aztertu dira tortura ekidin ahal izateko. Beraz, hirugarren atalaren helburua tortura delituaren zergatia eta erabilera ulertzen saiatzea zen, eta delitu hau ekiditeko zein prebentzio mota egokiagoa den aztertzea. Laburbilduz, aurreko bi ataletan torturaren inguruabarrak eta honen iraupenaren zergatia azaltzea izan da helburu.

Hala ere, nahiz eta historian zehar eta legeetan torturaren existentzia frogatuta geratu, Estatu batzuetan delitu honen existentzia ukatzen jarraitzen da. Laugarren atal honek Euskal Herriko torturaren gaur egungo errealitatea azaltzea izango du helburu, eta hori lortzeko, Euskal Herriko Kriminologia Institutuan aurrera eramaten ari den “Tortura Ikerketa Proiektua (1960-2013)” lana azalduko da.

4.1. Torturaren ikerketa proiektua 1960-2013

Aurreko ataletan ikusi ahal izan den bezala tortura gizartean eragin garrantzitsua izan duen eta oraindik presentzia handia duen portaera bat da, eta arrazoi horrengatik honen ikerketa garrantzia pisuzkoa izaten jarraitzen du. Izan ere, gaiaren inguruko ikerketa eta lege ugari egon arren ezinezkoa izan da harekin amaitu, eta hartu den jarrera orokorra Espainiar estatuan, torturaren abolizioa guztiz eman dela izan da.

Euskal Herrian, urteetan zehar izan den egoera politikoaren ondorioz, tortura eta tratu txarren gaia agertze handia izan du. 1960. urtetik aurrera tortura eta tratu txarren salaketa gehienak terrorismoaren aurkako legeek onartutako inkomunikazio epean zehar eman dira. Salaketa hauek historian zehar denbora desberdinean eman dira, baina arazo politikoaren eta estatuak tortura horiek ukatzeko joeraren ondorioz, ez dira giza eskubideen urraketak bezala ikusi. Ukatze honen ondorioz torturaren biktimak pilatuz joan dira, bizitakoaren errekonozimendu legala eta justizia izan gabe (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014, 3 or.).

Europako Kontseiluko Torturaren Aurkako Komiteak burututako informeetan Espainiako terrorismoaren kontrako legeen aldaketa eta teknika polizialen errebisioa bultzatu dute behin baino gehiagotan, Espainian torturaren existentzia onartuz. Izan ere, 1985eko terrorismoaren aurkako legearekin presoak 10 egun egon zitekeen inkomunikatuta eta asistentzia legalik gabe. Epe hori luzeegia zen eta babesgabetasuna sortzen zuen presoan. Egoera hori 1987. urtea arte iraun zuen, noiz legearen eraldaketa eman zen eta epea 5 egunetara jaitsi zen (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014, 3-4 orr.). Hala ere, epe hori, praktiketan zehar ikusi diren auziak kontuan hartuta, nahikoa da giza eskubidean modu larrian urratzeko eta presoetan bizitza osorako ondorioak sortzeko.

Gaur egun ere, torturaren biktimek ez dute errekonozimendu legal ezta instituzionalik izan, eta ez da aurrera eramanez ordaintza egoki baten plana. Gainera, erakunde internazionalak burututako txostenak alarmistak bezala kontsideratzen dira eta tortura ukatzen jarraitzen da Espainiako estatuan (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014, 4 or.). Arrazoi hauengatik, torturaren egoera erreala aztertzea oso garrantzitsua da, eta hori izango da atal honetan aztertuko den ikerketa proiektuaren helburu nagusia.

4.1.a. Proiektuaren Justifikazioa

Proiektu hau Eusko Jaurlaritzaren eskariz burutzen da, 2013-2016rako bake eta elkarbizitza planaren barruan dauden ekimenen parte bezala. Konkretuki iragana kudeatzeari buruzko seigarren ekimenean, torturari buruzko ikerketa eta ekintzak, barneratutako ikerketa da.

Bake eta elkarbizitzarako planean azaltzen den bezala:

“Tortura gertatzen den susmo zentzuduna izate hutsak zalantza hori argitzera bultzatu beharko luke giza eskubideekin eta demokraziaren balioekin konprometitu dagoen pertsona edo erakunde oro, baita fenomeno hori ez gertatzeko hartu beharreko neurriak hartzerare. Tortura gertatzeko aukera dagoela detektatzeak eta horri erantzuteak ez ditu sistema demokratikoa eta polizia-kidegoak ahultzen; aitzitik, haien legitimitatea eta sistema demokratikoarekiko konpromisoa areagotzen du” (Bakegintza eta bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, 2013, 46 or.).

Beraz, torturaren presentziari buruzko zalantzak argitzeko ikerketa bat egitea beharrezkoa suertatzen da. Ikerketa horren bidez beharrezkoak diren ordaintzak eta prebentzioa ezarri ahal izango lirake, torturaren errealitatea eta datuak ezagutuko baitziren.

Eusko Jaurlaritzaren ekimena bi helburu nagusi dauzka ikusitakoaren arabera: alde batetik, lehen aipatu den bezala, torturari buruzko errealitatea aztertuko duen ikerketa zientifikoa burutzea; eta beste aldetik, lortutako datuak kontuan hartuta beharrezkoak suertatzen diren errekonozimendu, ordaintza edo prebentzioa burutzea (Bakegintza eta bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia, 2013, 46 or.).

Giza eskubideen kontrolerako hainbat nazioarteko erakundeek eta giza Eskubideen Europako Auzitegien sententziek, besteak beste, aztertu eta adierazi duten bezala, beharrezkoa da torturaren inguruko ikerketa berriak burutzea kezka sortzen duten gai batzuk konpontzeko. Horregatik hain garrantzitsua da “Torturaren Ikerketa Proiektua 1960-2013” burutu beharreko lana (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014, 4 or.). Kezka sortzen duten gai horien artean hurrengoak daude:

- Inkomunikazio erregimenean dauden presoek eskubideen babesa eta bermea.
- Nazioarteko erakundeek eta lokalek torturaren prebentziorako emandako gomendioen betearazpen gradua aztertzea.
- Barne ikerketa edo kolaborazioa lortzea.

- Auzitegiek burututako torturen salaketei buruzko ikerketa.
- Auzitegi medikuaren esku-hartzea.
- Tortura eta tratu txarren praktiken onarpen politikoa edo sententzia edo barkamenen aurrean izandako erreakzioaren azterketa.

“Tortura ikerketa proiektua 1960-2013” Manuela Carmena, Jon Mirena Landa, Ramón Múgica eta Juan M^a Uriarte 2013ko ekainean Eusko Jaurlaritzaren eskariz aurkeztutako Euskal Herriko kasuaren inguruko giza eskubideen urraketen txostenean (1960-2013) esandakoan oinarritu egiten da. Giza eskubideen txosten hau 1960. urtetik gai politikoaren ondorioz Euskal Herrian burututako giza eskubideen urraketen sailkapena eta kuantifikazioa egitearen helburua zeukan. Urraketa horien artean torturaren salaketen existentzia jasotzen da, baina hauen inguruan egiaztatuak dauden datuen falta salatzen da. Txosten honen arabera tortura sufritu izanaren 5.500 salaketa publikoen ezagutza daude eta gai honetan ikerketa sakona burutzearen beharra adierazi egiten da (Carmena, Mirena Landa, Múgica, & Uriarte, 2013). Beraz, proposamen hauek oinarri bezala hartuta Bake eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusiak Euskal Herriko Kriminologiako Institutuari “Tortura ikerketa proiektua 1960-2013” aurrera eramatea eskatu zion (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014, 5. or.)

4.1.b. Aztertutako epealdia

Ikerketan kontuan hartuko diren auziak 1960-2013 urtekoak izango dira. Hasierako atalean ikusi ahal izan den bezala tortura antzinarotik existitzen da eta 1960 baino lehenagoko kasu ugari ezagutzen dira. Hala ere, data bat zehaztu behar zen ikerketa aurrera eramateko eta hau hartu zen bi arrazoi nagusiengatik: alde batetik, ikerketa proiektu hau oinarri bezala hartzen duen oinarrizko eskubideen urraketek lana data hauek kontuan hartzen ditu bere ikerketarako; eta beste aldetik, terrorismoaren biktimen inguruko politikak urte hori hartzen dute erreferentziatzat.

Denboraldi hau lau epe desberdinetan bereiztu daiteke gertaera historikoek izan duten garrantziaren arabera. Kontuan hartu behar da denboraldi honetan indarkeriazko gertaera ugari ere leku izan zutela, eta horien ondorioz egoera bereziak sortu zirela, Euskal Herrian gehien bat. Tarte hauek, eskubide urraketa gehienak barneratu ahal izateko, nahiko orokorrak dira eta denbora horretan gertatutakoa azaltzen dute. Beraz, urte horietan gertatutakoaren inguruketa bat egiten da, denboran kokatu ahal izateko eta

egitateak hobeto ulertzeko. Urte hauetan zehar bereiztu daitezkeen tarteak honakoak izango ziren (Carmena, Mirena Landa, Múgica, & Uriarte, 2013, 7. or.).

- **1960-1975:** Denbora tarte honetan frankismoaren azkeneko urteak izan ziren. Gainera, ETA taldearen indarkeria terroristaren handitzea ere eman zen. Indarkeria hau ondasun materialen kontra hasi zen, baina urte tarte hauetan oinarrizko eskubideen eta pertsonen aurkako delituak ere burutzen hasi ziren. Kontuan hartu behar da garai honetan estatuaren aldetik existitzen zen errepresioa eta bermerik gabeko sistema judiziala ere. Epe hau Francisco Francoren heriotzarekin amaitzen da.
- **1976-1978:** Nahiz eta oso epe laburra izan, garai honetan trantsizio politikoa gertatzen hasi zenez mugimendu handia egon zen. Epe honetan lehenengo bozketa demokratikoa gertatu zen eta Espainiako Konstituzioa sinatu zen. 1977ko urriaren 10ean amnistia orokorra gertatzen da, zeinaren bidez preso politikoak eta iraultzarekin zerikusia zuten delituen presoak libre geratzen dira. ETA bere ekintza terroristak handitzen ditu eta estatuko elementu ugari frankismoaren garaiko metodologiarekin lan egiten jarraitzen dutela ikusten da.
- **1979-1982:** Garai honetan ETA taldea bere ekintza odoltsuenak burutu zituen eta indarkeria maila guztiz handitu zen erailketa eta bahiketekin, nahiz eta Euskal Herriko politika aurrera joan. Euskal Herriko lehenengo autonomia estatutua onartu egin zen 1979. urtean eta 1981ean terrorismoaren biktimen lehenengo elkarteak sortzen da. Honetaz gain 1981eko otsailaren 23ko arrakastarik gabeko estatu kolpea gertatzen da. Nahiz eta sozialistek boterea eskuratu eta trantsizioari amaiera eman, estatuko indar polizialek giza eskubideen inguruko nazioarteko zuzenbideak emandako premisak ez dituzte errespetatzen eta terrorismoaren aurkako borroka ere komisariara mugitzen da.
- **1983-2013:** Azkeneko tarte hau aurrekoak baino luzeagoa da; izan ere, sistema demokratikoaren finkapena gertatzen da eta PSOE eta PP partiduak estatuaren burua txandakatzen hasten dira. 1983an ETArekin kontra borroka egiteko estatuaren menpe zegoen beste talde terrorista bat sortzen da: askapenerako terrorismoaren aurkako taldea; edo hobeto ezagututa: GAL. Talde hau Felipe Gonzalezen agintaldiaren lehenengo urteetan egon zen aktibo 1987. urtera arte. Nahiz eta demokrazia ezarrita egon oinarrizko eskubideen urraketak gertatzen jarraitzen dira eta poliziak

burututako torturen kasuen eta salaketen azterketa egin gabe jarraitzen du, delitu honen zigorgabetasuna mantenduz. 1988. urtetik aurrera terrorismoaren biktimen aldeko legislazioa sortzen hasten da, eta torturaren kontrako nazioarteko testuak berretsi eta legislazio nazionalera aplikatzen hasten dira. 2007. urtean memoria historikoaren legea sortzen da, zeinaren bidez diktaduran eta guda zibilean zehar eskubideen urraketak eta indarkeria jasan zutenen aldeko neurriak ezartzen diren. Bi urte jarduerarik gabe egon ondoren, 2011. urtean ETAk terrorismo ekintzen amaiera adierazten du, 43 urteko borroka armatuari amaiera emanez.

4.1.c. Lan taldearen inguruko datuak:

Proiektu hau aurrera eramango duten pertsonak hainbat zientzietako lau ikertzaile izango dira: Francisco Etxeberria Gabilondo, Carlos- Martin Beristain, Benito Morentin eta Laura Pego. Nahiz eta beste pertsona batzuk ere proiektuan laguntza eman, lau doktore hauek izango dira lanaren zuzendaritza burutuko dutenak. Bakoitzak proiektuaren hainbat arloetan parte hartuko du eta bestelako funtzioak izango dituzte. Funtzio horien artean hurrengoak daude:

- **Francisco Etxeberria Gabilondo:** Euskal Herriko Unibertsitateko auzitegi medikuntzako irakaslea eta antropologo forentsea. Talde honen zuzendaria eta ikertzaile nagusia da. Atal guztien zuzendaritza burutzen arituko da, baina gehien bat torturarekin zerikusia izan dezaketen datuen bilketara zuzenduko du bere lana. Lan hauen artean hainbat biktimekin eta profesionalekin elkarrizketak burutzea eta hauek eman dezaketen dokumentazioa jasotzea eta aztertzea egongo dira, torturaren datu basearen errolda osatu ahal izateko (aurrerago ikusiko den bigarren puntuan arituko da, nahiz eta besteak ere zuzendu).
- **Carlos-Martin Beristain:** Hogei urte daramatza Euskal Autonomia Erkidegoko justizia administrazioaren auzitegi mediku bezala lan egiten eta torturari buruzko hainbat lan aurrera eramanez, Entzutegi nazionalaren auzitegi medikuen lana aztertuz. Proiektu honetan eztabaidatuak eta entzunak izan diren kasuen azterketaz arduratuko da, eta baita kasu hauei gizartea eta komunikabideek emandako erantzuna aztertzeaz ere.
- **Benito Morentin:** Auzitegiko medikua da ere eta bere lana proiektu honetan Istanbulen protokoloaren aplikazioa izango da. Bera arduratuko da kasu adierazgarri batzuk aukeratzeaz eta salaketa horien sinesgarritasuna aztertzeaz.

- **Laura Pego Otero:** Jurista da eta zuzenbidearekin zerikusia duten gaitaz arduratuko da proiektu honetan. Erroldaren eraketan ere parte hartuko du, salaketak eta kasu judizialak aztertuz eta proiekturako baliagarriak diren ala ez erabakiz. Biktima eta profesionalekin kontaktua egiteaz ere arduratuko da.

4.1.d. Ikerketaren Metodologia

Epigrafe honetan Tortura ikerketa proiektua aurrera eramateko erabili den metodologia azalduko da. Hirugarren eranskinean ikusi daitekeen informazio orrian agertzen den bezala, torturaren intzidentziaren analisi epidemiologikoa burutzen da. Azterketa honen helburua torturari buruzko errolda bat sortzea da.

4.1.d.1- Helburua

“Tortura ikerketa proiektua 1960-2013”-ren helburua, portaera honen inguruko eragin errealari buruzko ezagutzak eskaintzea da, eta modu subsidiarioan errekonozimendurako eta prebentziorako gomendagarriak izan daitezkeen neurriak eta instrumentuak zuzentzea.

4.1.d.2- Ikerketaren lagina

Ikerketa torturatuak izan diren Euskal Herriko biztanleekin eta Euskadin torturatuak izan diren beste autonomietako biztanleekin osatuko da. Hau da, hiru taldetan banatu daitezke lagina osatuko duten pertsonen profilak: Euskal Herrian jaiotakoak eta bertan torturatuak; EAetik kanpo bizi direnak baina Euskal Herrian torturatuak izan direnak; eta azkenik, Euskal Herriko auzotasuna dutenak eta EAetik kanpo torturatuak izan direnak.

4.1.d.3.- Ikerketaren gorputza

Ikerketa bost atal izango ditu (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014, 5-6 orr.):

1. Torturaren finkatzea eta zigorgabetasuna azaldu ahal dituzten elementuen analisi dokumentalari buruzko informea.

2. Torturaren inguruan aurkitzen diren datuetara hurbiltzeko errolda bat osatzea.
3. Proiektura iristen diren torturen inguruko salaketen sinesgarritasuna aztertzea. Hau lortzeko bi instrumentu edo bide erabiliko dira:
 - Alde batetik, zeharkako analisi estatistikoa burutuko da. Analisi mota hau ikerketa estatistikoa eta demografikoa da zientzia sozialetan oso erabilia dena. Behatzailea eta deskriptiboa den analisi mota bat da zeina baimendu egiten duen momentu konkretu batean fenomeno baten prebalentzia aztertzea. Teknika hau salaketen sinesgarritasun globala aztertzeko erabiliko da.
 - Beste aldetik, Istanbulko Protokoloa aplikatuko da salaketa burutu dutenen lagin adierazgarri eta esanguratsu batean. Protokolo hau tortura eta bere eraginak aztertzeko arau multzoak jasotzen dituen lehen idazkia da. Beraz, torturatuak izan diren pertsonen ebaluaziorako eta tortura kasuak aztertzeko jarraitu beharreko gida bat da. 2000. urtean onartua izan zen eta, nahiz eta izaera loteslerik ez izan, estatuak torturaren ikerketa burutzera behartuak daude eta hura burutzeko Istanbulko protokoloa oso egokia da. Bide hau banakako salaketen sinesgarritasuna aztertzeko erabiliko da.
4. Entzunak eta eztabaidatuak izan diren kasuen azterketa kualitatiboa burutzea. Honen helburua biktimen eskutik haien esperientzia eta torturak beraien bizitzan sortu dituzten aldaketak ezagutzea izango da. Baita ere kasu horiei instituzioek eta gizarteak eman dieten erantzuna aztertzea.
5. Amaierako txostena idaztea. Torturaren eta tratu txarren inguruko ondorioak eta gomendioak azalduko dira txosten horretan, arlo internazionalen fenomeno hauei ematen zaien trataerarekin konparatuta.

4.1.d.4.- Proiektuan erabilitako iturriak eta datuak

1. Zeharkako iturrien bilketa, errebisioa eta analisisia.

Puntu hau osatzeko torturaren inguruan publikatutako informeen bilketa egin da Torturaren Ikerketa Proiektuak barneratzen dituen 1960-2013 urteen bitartean.

Arlo judizialari dagokionez, torturaren portaera zigortzen duten 20 sententzia judizial aurkitu dira. Partikularren kasuez gain, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak eta Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordeak torturaren

inguruko kasuak ez aztertzeagatik Espainiaren kontra eman dituzten sententzia eta informeak ere bildu dira.

Ikerketa taldea 2015eko otsailean burutu zuen txostenean jasotzen diren ondorengo iturri sekundario erabili dira (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014):

- Nazioarteko erakundeen txostenak:
 - Europako Kontseiluaren Torturaren Prebentziorako Komitea.
 - Nazio Batuak:
 - Nazio Batuen Torturaren Aurkako Komitea.
 - Nazio Batuen Giza Eskubideen Komisioa
 - Torturaren Inguruko Kontalari Berezia.
 - Giza Eskubideen Komitea.
 - Organizazio ez gubernamentalak:
 - Amnistia Internazionale.
 - Human Rights World.
- Nazionalak eta lokalak diren ONGak
 - Torturen Prebentzio eta Salaketarako Koordinakundea.
 - Torturaren Aurkako Taldea (TAT).
 - Euskal Memoria.
 - Argituz.
 - Behatoki.
 - Goldatu.
 - Salhaketa.
 - OPE.
 - Pablo Iglesias Fundazioa (Alcalá de Henares unibertsitatea).
 - Eusko Legebiltzarreko artxiboa.
 - Santre-Forest familiaren artxiboa.
- Publikazio zientifikoak eta eraginari buruzko ikerketak.
- Ikerketa enpirikoak:
 - “Tortura: una aproximación científica”
 - Kriminologiako Euskal Institutuaren eskubide zibil eta politikoen inguruko txostena.
 - Ararteko.
 - Estatistika ofizialak.

- Estatuko fiskalia orokorra.
 - Espainiar Estatuko torturaren prebentzionako instrumentu nazionalak.
 - Epai judizialak.
2. Iturri primarioak: biktimen testigantzak eta salaketak.

Puntu hau tortura jasan duten eta haien bizipena azaldu nahi duten biktimekin kontaktu zuzena izaten beteko da. Hau lortzeko proiektuaren informazioa publikoa egin behar izan zen, biktimak eta beste erakunde batzuk proiektuaren taldearekin kontaktuan jartzeko eta tortura kasuei buruz zeukaten informazioa erraztu ahal izateko. Hainbat bide erabili dira (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014, 6-7 orr.):

- Azken urteetako kasuei buruzko informazioa izan dezaketen erakunde eta elkarteekin harremanetan jartzea.
- Proiektura iristen diren salaketak elkarrizketa baten bidez berresten saiatuko da, nahiz eta oso zaila izan daitekeen kontuan izanda pertsona asko jadanik hilak daudela. Kasu hauetan familiarren bidez berresten saiatuko da.
- Tortura kasuei buruzko informazioa izan dezaketen profesionalekin elkarrizketak eta bilerak burutuko dira. Profesional hauen artean abokatuak, medikuak eta batzorde juridikoen ordezkariak daude besteak beste.
- Torturaren ikerketarekin eta prebentzioarekin erlazioa daukaten erakunde judizial, medikua, poliziak edo fiskalarekin bilerak ezarriko dira.
- Biktimen testigantza zuzenak bilduko dira, proiektua aurrera joan ahala hauek aztertzeko eta ikerketa kualitatiboaren puntua burutu ahal izateko. Elkarrizketa hauek salaketei irudia eta ahotsa jartzeko modu bat ere izango da.
- Istanbulen protokoloan oinarritutako adituen protokoloa sortu da tortura eta tratatu txarren salaketen sinesgarritasun maila neurtu eta ikertu ahal izateko.

4.1.d.5.- Istanbulen protokoloan oinarritutako adituen protokoloa

Tortura ikerketa proiektuaren bost eginbeharrak azaltzerakoan baliabide bat aipatu da. Instrumentu hori “Tortura, Zigor eta Tratamendu Krudel, Anker edo Apalesgarrien ikerketa eta dokumentazio gida” da, edo hobeto ezagutzen den bezala, Istanbulen protokoloa. Honen bidez jasotako salaketak sinesgarriak diren ala ez zehazteko

erabiltzen da. Dokumentu hau 2000. urtean onartua izan zen Nazio Batuen giza eskubideen goi komisioaren bulegotik, torturatuak izan diren pertsonen kasuak aztertu eta aurkikuntza horiek epaitegira eramateko gida internazionala bezala.

Istanbuleko protokoloa ez du izaera loteslerik, baina lege-testuinguruaren puntuan ikusi den bezala arau internazionalak estatuak behartzen dituzte torturaren ikerketa burutzera. Beraz, protokolo hau ikerketa hura burutzeko instrumentu bat izango da. Bere sorkuntza hiru urte iraun zuen eta 75 adituen (legeetan, giza eskubideetan eta mediku arloan) elkarlana izan zen.

Atal honetan gorago aipatu den bezala aditu dokumentu propioa sortu da Istanbuleko protokoloa jarraituz ikerketan zehar lortutako salaketa kopuru bati aplikatu ahal izateko. Protokolo honen helburu nagusia tortura eta tratu txarren salaketen sinesgarritasunaren balorazioa egitea izango da, biktimen ebaluazio fisiko eta psikologikoa eginez. Tortura alegazioen arabera hau epe labur, ertain eta luzean izandako eragina ebaluatu egingo da kasu bakoitzean. Adituen txosten honen bidez ez da ezer ziurtatu nahi, soilik biktimak adierazitako torturak eta bere bizitzan izandako eraginak bateragarriak direla ezartzea. Beraz, ez da protokolo honen helburua izango egitateen tipifikazio juridikoa egitea, baizik eta egitate horien balorazio psikologiko eta medikua (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014, 68 or.).

- Adituen protokoloaren metodologia (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014, 68-69 orr.):
 - Torturaren definizioa:
 - Torturaren inguruan erabiliko den definizioa 1984ko konbentzioan erabilitakoa izango da, eta beraz, lan hau aurrera eramateko erabili den definizio berdina eta oinarri kontzeptualaren atalean ikusi daitekeena.
 - Baloraziorako taldea ondorengo subjektuek osatuko dute:
 - Prestakuntza kliniko edo psikiatrikoa duten psikologoek eta indarkeriazko biktimekin eta test psikometrikoekin esperientzia dutenak. Pertsona hauek Istanbuleko protokoloan trebatuak izan beharko dira honen aplikazio egokia egiteko.
 - Istanbuleko protokoloan prestakuntza daukaten medikuek.
 - Funtzioak:
 - Psikologo eta psikiatrak:
 - Istanbuleko protokoloan oinarritutako elkarriketa erdi-egituratua.
 - Test-psikometrikoak egitea.

- Taldeko sesioak burutzea.
 - Auzitegi txostenak
 - Medikuek:
 - Jasotako informazio medikuaren baloraketa egitea.
 - Psikologoek jasotako informazio medikuaren balorazioa.
 - Auzitegi txostenak burutzea.
- Auzitegiko balorazioaren metodologia: Forensearen balorazioa biktimaren intimitatea babesteko berme guztiak jarraituko ditu eta arau etiko zorrotzak jarraitu egingo dira, elkarrizketatuen baimen informatua lortuz balorazioa burutu baino lehen. Elkarrizketatzailea edo medikua bere buruaren aurkezpena egingo du eta frogen arrazoiak eta ebaluazioaren prozedimendua eta helburuak azalduko dizkio biktimari. Auzitegiko balorazioa ondorengo elementuak izan beharko ditu (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014, 69-71 orr.):
 - Datuak egiaztatzeko informazio iturriak:
 - Tortura salaketaren txosten judizialaren diligentzietan salaketa eman baldin bada.
 - Tortura salaketei buruz emandako aitorpena txosten judizialetan edo publikoan.
 - Epailearen aurrean burututako eskubideen urraketei buruzko alegazioak.
 - Auzitegi medikuko txostenak eta txosten psikologikoetan (espetxeetan, ospitalean... emandakoak).
 - Familiarrei edo lekukoei egindako elkarrizketen balorazio zorrotza.
 - ...
- Elkarrizketa eta esplorazio psikologikoa: Elkarrizketak luzeak izan beharko dira eta Istanbulko protokoloa jarraitu beharko da. Elkarrizketa grabatzea derrigorrezkoa izango da etorkizunean errebisioa egin ahal izateko.
- Test psikologikoak: Tortura ikerketa proiektuaren psikologoek ondorengo testak proposatu egiten dituzte elkarrizketa osatzeko.
 - Beck-en depresio eskala.
 - Estres post-traumatiko zorrotzaren baloraziorako eskala (PCL-C)
 - Bizitzaren gaineko eraginaren baloraziorako galdeketa (VIVO).

- Taldeko sesioak: Aztertutako 10 biktimez osatutako taldeekin bi sesio burutuko dira, adituen txostena osatu ahal izateko eta asistentzia terapeutikoa behar duten kasuak identifikatu ahal izateko.
- Azterketa medikua: Medikuen biktimek aurkezten dituzten lesio edo aztarna fisikoak aztertuko dituzte, haien torturen aitortpenarekin bat egiten duten ala ez ezartzeko. Lesio edo aztarnarik aurkitzen ez badira deklarazioarekin bat datorren ala ez aztertu beharko da baita ere, izan ere, tortura mota askotakoa izan daiteke eta lesio batzuk guztiz sendatu egiten dira.
- Auzitegi txostena idaztea: Txosten honetan aurreko puntuetan lortutako informazioarekin torturaren alegazioak sinesgarriak diren ala ez baloratu egingo da. Hau da, biktimak esandakoa eta aurkitutako aztarna fisiko eta psikologikoak bat egiten duten ala ez baloratu egin beharko da Istanbulko protokoloa jarraituz. Txosten honetan jaso beharreko informazioa 1. eranskinean ikusi daiteke.

4.1.d.6.- Tortura ikerketa proiektuaren Datu basea

Proiektua aurrera eraman ahal izateko eta tortura kasuen errolda egokia burutu ahal izateko beharrezkoa zen datu base egokia sortzea. Datu base honetan ikerketan zehar lortutako salaketa baliagarri guztiak jasoko dira eta baita ere torturaren inguruan interesgarria eta lagungarria izan daitekeen dokumentazioa ere.

Datu basean jasotzen diren datuak honakoak dira (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014, 12 or.):

- Biktimen datu pertsonalak.
- Gertakarien inguruko informazio orokorra.
- Salaketa judizial edo publikoaren inguruko datuak
- Auzitegi medikuaren txostenak
- Epailaren aurrean burututako alegazioak eta izapide judizialak. Baita ere, tortura kasuen inguruan burututako azterketa judiziala eta kasua aurrera eramateko aurkeztutako dokumentazioa.

Datu basearen funtzionamendu egokia ziurtatzeko kontrolerako prozedimenduen azpian jarri da eta hainbat pre-test burutu dira. Kontrolerako prozesu hauek datuen babeserako mekanismoak ere barneratzen dituzte. Horretaz gain, Euskal Herriko Unibertsitateko Etika Batzordetik ere pasa da, kontuan izanda izaera pertsonala duten datuekin lan egiten dela.

Bigarren eranskinean ikusi daitekeen bezala datu basean informazio desberdina jasotzen da. Alde batetik, biktimari buruzko informazio pertsonala: izena, abizenak, nortasun agiria, jaiotze data eta lekua, egoera zibila...eta baita ere bere datuak modu anonimoan gordetzea nahi duen ala ez. Beste aldetik, gertaeraren inguruko datu orokorrak aurkitu daitezke. Datu hauek beste bost ataletan banatu egiten dira: gertaerei buruzko datu orokorrak (zein tortura mota, zein teknika erabili...), testigantza publikoak zein judizialak, auzitegi mediku txostenetan jasotako informazioa, beste mediku txostenen informazioa eta epailearen aurrean eskubide urraketak argudiatu diren ala ez.

Ondoren izapide judizialei buruzko informazioa biltzen da. Atal hau osatzeko beharrezkoa zen biktimaren kasuaren sententziak eta dokumentu judizialak izatea, ez du balio testigantza soilarekin, datuak maila tekniko handiagoa dutelako. Torturen salaketa aurkeztuta baldin badago ere salaketa eta auzitegiek emandako erantzuna hartu egiten dira datu basea osatzeko. Azkenik, kasuaren laburpena eta behaketak egiteko aukera dago, datu garrantzitsuenak eskura izateko. Dokumentuak frogaren elementuaren atalean jartzen dira.

4.1.d.6.- Prozedura

Goiko puntuan adierazi den bezala, lehenengo pausoa datu basea sortzea izan zen, eta ondoren datu base hau osatzeko informazioa jasotzea. Datu horiek lortzeko hainbat elkartekin kontaktatu zen, horien artean: Goldatu, TAT, ELA, Salhaketa, hainbat artxibo, Euskal Memoria... horretaz gain, espediente judizialak eta hemerrotekak ere begiratu ziren. Behin tortura salaketa aurkeztu zutenen pertsonen zerrenda izanda, hauei gutuna bidaltzen zaie proiektuari buruz berri emateko eta honetan parte hartu nahi duten galdetzeko (gutun hau jasotzen dituen dokumentuak 3. Eranskinean agertzen dira). Pertsonak bere baimena ematen duenean elkarrizketak burutzen dira. Hauek bideoan grabatu egiten dira eta ondoren editatu egiten dira bi kopia sortuz: kopia bat biktimarentzat, eta bestea proiektuarentzat.

Elkarrizketa aurrera eramateko prozedura bat jarraitzen da: hasteko, proiektuaren helburuak eta zergatia aurkezten zaizkio elkarrizketatuari, lana zertaz doan jakiteko. Atal hau ez da bideoan jasotzen; ondoren, pertsonari bere buruz aurkezteko eskatzen zaio eta bizitakoaren narrazio askea egitera gonbidatzen zaio, gertaera zein inguruabarretan eman zen ezagutzeko; hirugarrenik, galdera konketuagoak egiten


zaizkio, bere hasierako historian esandako punturen bat argitzeko edo ukitutako zenbait gaiei buruz hitz egiteko. Galderak ondorengo puntuetara zuzenduak egongo dira:

1. zein indar polizial esku hartu zuen.
2. tortura burutu zen lekuaren deskripzio fisikoa eta parte hartu zuten pertsonena.
3. erabilitako teknikak eta instrumentuak.
4. iraupena.
5. beste pertsoneri burututako torturak entzun ziren ala ez.
6. torturaren ondorio fisiko zein psikologikoak eta hauen iraupena.
7. auzitegi medikuarekin bilera izan zuen ala ez jakitea.
8. Salaketa publikoa egin zuen ala ez eta zein izan zen honen emaitza

Azkenik, elkarrizketatuari garrantzitsua iruditzen zaion eta galdetu ez zaion edozer esan nahi duen galdetzen zaio (Etxeberria, Martin-Beristain, Morentin, & Pego, 2014).

Elkarrizketa burutu ondoren biktimari Torturari buruzko inkesta (4. eranskina) bat betetzea eskatzen zaio eta gutunaren dokumentuak sonatu ez baldin baditu sinatu egiten dira. Dokumentu hauen bidez tortura ikerketa proiektuan parte hartzea onartzen du eta berari buruz jasoak dauden dokumentuak egiazkoak direla adierazten du. Testigantza bideoan jasotzen denez honen edizioa egin behar da eta behin amaituta, bideoa eta beste dokumentu guztien kopiak bidaltzen zaizkio biktimari.

Bideoaren edizioa egiteko Pinnacle programa erabili zen. Testigantzan agertzen diren datu pribatu batzuen zatiak moztu egiten dira, baina gehienetan testigantza osorik grabatu egiten da, elkarrizketan etenaldirik ez egoteko. Beraz, bideoari jartzen zaizkion elementuak sarrera eta amaiera dira. Biktima bakoitzeko bideoan eta dokumentuetan jasotako informazio guztia datu basean sartu egiten da eta modu honetan osatzen joango da.




2. irudia. Bideoetan jartzen den sarreraren irudia.


Behin bideoa sortuta, dokumentu birtualak pertsonaren izena eta abizena duen karpeta batean gordetzen dira. Karpeta honetan elkarrizketa originala, editatutako bideoa, sortutako ISO irudia eta diskoaren karatula gordetzen dira. Bideoa fisikoki artxibatzeko bi kopia egiten dira. Diskoaren kutzaren aurrealdean Eusko Jaurlaritzaren logotipoa, Euskal Herriko Unibertsitatearen logotipoa, Kriminologiako Euskal Institutuaren izena eta biktimaren izen abizenak jartzen dira. Bideo hauek artxibatzeko erabiltzen den sistema ondorengoa da: DVD TO- IZEN ABIZENAK. Kutzaren atzealdean, berriz, kasuaren sinopsi laburra idazten da, eta horretaz gain, elkarrizketatzailearen eta bideoa editatu duten pertsonen izenak, bideoaren iraupena, bideoa non eta noiz grabatu den eta aurrealdean agertzen diren instituzioen logotipoak jartzen dira.



3. irudia. Bideoaren kutzaren aurrealdea.



4. irudia. Bideoaren diskoa.



5. irudia. Kutzaren atzealdea.

Gutunaren barnean doazen dokumentuetan biktimari galdetzen zaio Istanbulleko adituen protokoloan parte hartu nahi duen ala ez, eta pertsonak ematen duten erantzunaren arabera zerrenda bat osatzen da. Behin zerrenda eginda protokoloa aplikatu egiten da. Tortura Ikerketa Proiektua pauso honetan dago oraintxe bertan, Istanbulleko protokoloa aplikatzen hasiko baita. Fase horretan zoriz aukeratutako 200 kasu aztertuko dira, salaketen fidagarritasuna ezarri ahal izateko. Beraz, Istanbulleko protokoloa datu basearen errolda nahiko handia denean burutzen hasiko da. Hala ere, Istanbulleko protokoloa aplikatzen den bitartean datu berri gehiago sartu ahalko dira datu basean.

Hurrengo pausoa publikotasun handia izan duten eta entzunak izan diren tortura kasuei gizarteak eta estatuak emandako erantzunak aztertu egingo dira. Azkenik, ikerketan zehar lortutako datuak kontuan izanda amaierako txostena egingo da. Emaitzen arabera portaera honen prebentziorako gomendioak emango dira, egoera hobetzeko asmoarekin.

Lan honen hirugarren eranskinean ikusi daitekeen bezala, Tortura Ikerketa Proiektuan aurreikusi egiten da gorabehera psikologikoren bat pairatu dezakeen biktimen dohaineko tratamendua beharrezkoa ikusiz gero. Hori eskaini ahal izateko taldean arazo psikopatologikoetan esperientzia duten pertsonak aritzen dira baita ere.


4.1.e. Lanean lortutako emaitzen inguraketa

Lan honetan agertzen diren emaitzak 2015eko urtarrila arte jasotako eta aztertutako 2.820 salaketa kasuen inguruan burutu dira. Istanbulleko protokoloa ekainaren amaieran aplikatzen hasiko denez, populazio honen sinesgarritasuna ez da oraindik zehaztu. Lortutako emaitzak lagin honetan honakoak izan dira:

Sexuari dagokionez, gizonezkoen salaketa gehiago aurkitu dira emakumeenak baino. Emakumeek burututako salaketa kopurua 2.820 pertsonako laginean 426koa izan da. Gizonezkoena, berriz, laginaren kopurua kontuan izanda, askoz handiagoa izan da, 2.394 salaketekin (3. taula).

| Sexua | Salaketa kopurua |
|-------------------|-------------------------|
| Emakumea | 426 |
| Gizonezkoa | 2.394 |

3. taula. Emakume eta gizon kopurua.




1. grafikoa. Emakume eta gizonen salaketen ehunekoak


Euskal herriko autonomia erkidegoen arabera desberdintasunak aurkitu daitezke salaketa kopuruari dagokionez. Kasu honetan bereizketa biktimen sexua eta autonomia erkidegoetan burututako salaketen arabera egin da. Momentuz biktima gehien aurkeztu dituen autonomia erkidegoa Gipuzkoa izan da 1.475 salaketekin, ondoren Bizkaia (968) eta azkenik Araba 151 salaketekin (4. taula). Sexuen araberako datuak kontuan izanda, ez da arraroa probintzia guztietan gizonezkoen salaketak gehiago izatea.

| | Emakumea | Gizonezkoa | TOTALA |
|-----------------|----------|------------|--------|
| Araba | 21 | 130 | 151 |
| Bizkaia | 144 | 824 | 968 |
| Gipuzkoa | 224 | 1.251 | 1.475 |

4. taula. Emakume eta gizonen salaketa kopurua Euskal probintzien arabera



2. grafikoa. Salaketa kopurua sexu eta Euskal probintziaren arabera.




3. grafikoa. Salaketen ehunekoa Euskal probintzien arabera.

Hala ere, lehen esan bezala, proiektua ez ditu soilik Euskal Herrian burututako torturak barneratzen, baizik eta Euskal Herriko auzotasuna duten baina beste leku batean torturatuak izan direnen salaketak ere jasotzen direla. Orain arte burututako azterketan Nafarroa, Espainiar estatuko beste autonomia erkidegoak, Frantzia, Lapurdi, Nafarro-behera, Zuberoa, Herbehereetan, Ekuadorren eta Mexikon torturatutako pertsonen salaketak jaso dira. Salaketa hauen kopurua 226koa da. Bosgarren taulan sexuen arabera salaketa kopuruak agertzen dira:

| | Emakumezkoa | Gizonezkoa |
|--|-------------|------------|
| Nafarroa | 6 | 38 |
| Espainiar Estatuko beste autonomietan | 24 | 86 |
| Frantzia | 2 | 16 |
| Lapurdi | 3 | 33 |
| Nafarroabehera | 1 | 1 |
| Zuberoa | 0 | 1 |
| Hebehereak | 0 | 4 |
| Ekador | 0 | 2 |
| Mexiko | 1 | 6 |
| Daturik gabe | 0 | 2 |
| TOTALA | 37 | 189 |

5. taula. EAetik kanpo burututako tortura salaketak.

Tortura burutu den lekua konparatu egiten baldin bada ikusi daiteke salatu diren kasu gehienak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko probintzietan eman direla. Laugarren grafikoa bosgarren taulan aipatutako herrialdeak bi taldeetan sailkatu dira: alde batetik, Espainiako beste probintzietan eta beste aldetik, Espainian ez dauden beste lekuak.




4. grafikoa. Tortura burutu den lekuaren araberrako ehunekoa.

2.820 pertsona hauek hainbat erakundengatik atxilotuak izan ziren. Kopuru gehiena jasotzen dutenak Polizia Nazionala eta Guardia Zibila izan dira. Lehenengoak 1.319 atxilotuekin eta bigarrena 1.174 pertsonekin. Kontuan izanda Espainiar estatu osoan egikaritzeko indarra daukatela eta Espainiar gobernuaren agindupean zuzenean lan egiten dutela ez da arraroa atxiloketa gehienak burutu dituztenak izatea.


| Gorputz poliziala | Burututako atxilotetak |
|--------------------------|------------------------|
| Ertzaintza | 271 |
| Guardia Zibila | 1.174 |
| Polizia Nazionala | 1.319 |
| Frantziako polizia | 21 |
| Brigada Politiko Soziala | 11 |
| Mexikoko polizia | 2 |
| Mossos d'esquadra | 2 |
| Agertze judiziala | 16 |
| Polizia Munizipala | 3 |
| Polizia Militarra | 1 |
| TOTALA | 2.820 |

6. taula. Salaketak Estatuko segurtasun indarren arabera.

Gorputz polizialen inguruan burututako tortura salaketen ehunekoak ateratzen baldin badira Ertzaintza, Guardia Zibila eta Polizia Nazionalaz gain burututako beste salaketak pisu gutxiago daukatela ikusi daiteke. Bosgarren eta seigarren grafikoetan aipatutako hiru gorputz polizialak alde batetik eta beste guztiak beste talde batean elkartuta agertzen dira. Bigarren grafikoan berriz, lehenengo grafikoaren %2 osatzen duten beste indar gorputzen barneko taldeen ehunekoak ikusi daitezke.



5. grafikoa. Segurtasun indarren arabeko ehunekoa.




6. grafikoa. Beste segurtasun indar eta gorputzen inguruko salaketen ehunekoa.


Estatuko segurtasun indarren inguruko datu horiek Euskal Herriko probintzien arabera sailkatu daitezke baita ere. Hauen arabera ikusi daiteke Gipuzkoako probintzian salaketa gehiago egoteaz gain, segurtasuneko gorputz eta indar gehiago parte hartu dutela. Udaltzaingoaren agerpena dagoen probintzia bakarra izanda (7. taula).

| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---------------------------------|-------|---------|----------|
| Ertzaintza | 10 | 166 | 93 |
| Guardia Zibila | 86 | 451 | 670 |
| Polizia Nazional | 55 | 340 | 696 |
| Brigada Politiko soziala | | 6 | 5 |
| Agertze judiziala | | 5 | 9 |
| Polizia municipala | | | 1 |
| Daturik gabe | | | 1 |


7. taula. EAeko probintzietan segurtasun gorputzen parte-hartze araberako salaketa kopurua.



7. grafikoa. Araban segurtasun indarren parte-hartzearen ehunekoak.




8. grafikoa. Bizkaian segurtasun indarren parte-hartzearen ehunekoak



9. grafikoa. Gipuzkoan segurtasun indarren parte-hartzearen ehunekoa

Aurreko grafikoen (7, 8 eta 9. grafikoak) arabera ikusi daiteke Euskal Herrian ere presentzia handiena duten gorputz polizialak Ertzaintza, Guardia Zibila eta Polizia Nazionalea direla. Baina probintziaren arabera bata edo bestea eragin handiagoa izango du. Hurrengo grafikoa ikusi daiteke hiru gorputz polizial hauen presentzia Euskal Herriko hiru probintzietan. Ikusi daitekeen bezala Bizkaian Ertzaintzaren aurkako salaketa gehiago aurkeztu dira, eta Gipuzkoan, berriz, Polizia Nazionalaren kontra. Arabako probintzian berriz salaketa gehien jaso dituen gorputz poliziala Guardia zibila izan da.



10. grafikoa. Ertzaintzaren salaketen ehunekoa EAeko probintzien arabera.



11. grafikoa. Guardia Zibilaren salaketen ehunekoak EAEko probintzien arabera.




12. grafikoa. Polizia Nazionalea salaketen ehunekoak EAEko probintzien arabera.

Kontuan izanda Tortura Ikerketa Proiektua epealdi luzea aztertzen duela, interesgarria egiten da baita ere salaketa horiek hamarkadetan sailkatzea (8. taula). Modu honetan, aztertu ahal izango da tortura zein egoera sozialen eta kulturalen arabera sortzen da, gertaeren garai historikoa kontuan izanda. Ikusi daiteke 80. hamarkada arte salaketen igoera handia egon zela, baina hortik aurrera jaitsiz joaten dira (13. grafikoa).

Hala ere, kontuan hartu behar da ikerketa amaitu gabe dagoela eta informazio berria sartzerakoan datu hauek aldatu egingo direla seguruenik.

| Hamarkada | Salaketa kopurua |
|---------------|------------------|
| 60. hamarkada | 138 |
| 70. hamarkada | 474 |
| 80. hamarkada | 914 |
| 90. hamarkada | 687 |
| 00. hamarkada | 540 |
| 10. hamarkada | 67 |
| TOTALA | 2.820 |

8. taula. Salaketen kopurua hamarkaden arabera.



13. grafikoa. Torturen salaketa sexu eta hamarkadaren arabera.

4.2. Kriminologiaren ekarpena

Atal honen helburua kriminologo batek giza eskubideen bortxaketen eta urraketen arloan burutu dezakeen papera zehaztea izango da. Tortura Ikerketa Proiektuan parte-hartzean burututako ekintzen arabera, kriminologoak arlo honetan

laguntza ugari eman dezakeen profesionala dela ondorioztatu daiteke. Izan ere, hainbat arlo ukitzen dituen gaia da, eta kriminologoek duten ezagutza anitzei esker urraketan inguruko arazoak ikertzeko lagungarria egiten den profesionala da. Lan osoan zehar ikusi den bezala, tortura gaur egun existitzen den arazo larria da eta profesional guztien laguntza beharrezkoa da portaera honekin amaitu ahal izateko. Atal honen bidez, beraz, kriminologoak eskaini dezakeen laguntza azpimarratuko da.

Kriminologia delitugileaz, biktimaz eta delituaz ezagutzen duen zientzia diziplinanitza da. Honen bidez delituaren eta bere aldagaien inguruko informazioa jasotzen da, eta esku-hartze zein prebentzio programak sortzen laguntzen du (García-Pablos de Molina, 1989, 80 or.). Beraz, bere azterketa objektuaren izaera abstraktua eta zabala kontuan izanda, kriminologiaren lan eremua zabala dela esan daiteke. Eremu hau azkeneko urteetan oraindik zabalagoa bihurtu da; izan ere, bere azterketa objektua ere zabaltzen da, delitugileaz gain beste bi elementu sartzen direlako: biktima eta kontrol sozialaren azterketa (García-Pablos de Molina, 1989, 80-81 orr.).

Beraz, kriminologoak hiru eremutan jardun ahal izango du: alde batetik, teoria kriminologikoen bidez delituaren zergatia azalduz eta honen aldagaien inguruko informazioa eskaintzen; beste aldetik, delitua modu informal zein formalean prebenitzeko programak sortzen; eta azkenik, delitugilearen gaineko esku-hartzea burutzen (García-Pablos de Molina, 1989, 84 or.).

Kriminologo batek egingo duen lehenengo ekarpena, beraz, teoria kriminologikoen bidez delitua edo, kasu honetan, giza eskubideen urraketa azaltzea izango da. Zati teoriko hau oso garrantzitsua da ondorengo pausoak modu egokian eman ahal izateko. Izan ere, delituaren kausak eta zergatia ulertzen ez baldin badira, ezingo dira prebentzio ezta esku-hartze egokiak egin. Beraz, kriminologoaren lehenengo pausoa delituaren azterketa teorikoa burutzea izango da (García-Pablos de Molina, 1989, 85 or.). Lan honen hirugarren puntuan azaldutako teoriak, aztertu beharreko batzuk izango ziren, ondoren delitua hobeto azaltzen duena erabiltzeko.

Gaur egun gailentzen diren teoria kriminologikoak teoria sozialak izan daitezke. Hauek delituaren izaera soziala eta ikuspuntu errealista bat aurkezten dute; gainera, delinkuentzian eragiten duten hainbat aldagai aztertzea baimentzen dute (García-Pablos de Molina, 1989, 90 or.). Baina 3.7. puntuan esan den bezala, teoriak gero eta konplexuagoak dira, ezin delako delitua bezalako elementu zabala teoria absolutu baten bidez azaldu. Teoriak integratu egin behar dira eta delituaren izaeraren arabera teoria bat edo bestea aukeratu.

Kriminologo batek egin dezakeen bigarren ekarpena prebentzio programak ezartzea izango da. Kontuan izan behar da zuzenbide penala *ultima ratio*-tzat erabili beharreko instrumentua dela, baina gaur egun edozein gatazka dagoenean honetara jotzen da. Hala ere, zuzenbide penalaren zigorra berandu iristen da eta, nahiz eta prebentzio orokorra burutzerazuzentzen den, ez du delitua burutzea ekiditen. Gainera, zigorraren bidez ez da delituaren kausetan eragiten eta, ondorioz, ez da delitua sortu duten aldagaien desagerpena gertatzen. Beraz, zigorra bete ondoren delitua berriz ere burutzeko arriskua egongo da, prebentzio egokia gertatzen ez baldin bada (García-Pablos de Molina, 1989, 91 or.).

Kriminologoaren lana izango da lehenengo puntuan aztertutako teorien bidez lortutako ezagutza aplikatuz, delituaren kausen prebentzio egokia sortzea. Hau da, prebentzio primario (delitugileari zuzendua) zein sekundario (gizarteari zuzendua) egokiak sortzeko gai den profesionala da kriminologoa. Beraz, torturaren kasuan, delitu hori burutzea sortzen duten aldagaiak ezagutuz gero, kriminologo batek hauek desagerrarazteko prebentzio programak burutu ahal izango zituen (Garrido, Stangeland, & Redondo, 2006, 984 or.).

Azkenik, delitugilearen gaineko esku-hartze egoki baten ekarpena egin dezake kriminologoak. Gaur egun, tratamendu eta birgizarteratzearen ideiak ez daude oso ondo baloratuak, kontuan izanda gertatzen den berrerorketa tasarekin. Baina hau arrunta izan daiteke tratamendua sistema penitentziarioaren barruan aplikatzen baldin bada eta delitugilea kutsu negatiboa duen ingurugiro horretan jarraitzen baldin bada (García-Pablos de Molina, 1989, 93 or.).

Kriminologoak delitugilearen esku-hartze egokia egiteko hiru elementu aztertu beharko ditu: alde batetik, zigorrak presoan duen eragin erreala aztertu beharko da, hau da, zigorraren betearazpena ondorio negatiboak izan dituen ikusi beharko da; beste aldetik, delitugilearen birgizarteratze egokia baimentzen duten programak frogatzea, hau da, gizartean berriz ere jarduteko gai izateko aproposak diren programak egitea, gizartearen estigmatizazioa ekidinez. Azkenik, ezin izango da prebentzio egokia burutu gizartea delituaren izaera sozialari buruz ohartarazten ez baldin bada (García-Pablos de Molina, 1989, 94 or.).

Ekarpen hauetaz gain, kriminologoek daukaten formakuntza zabalari esker giza eskubideen urraketan eremuan alderdi psikologikoa ere landu ahalko zuten. Tortura Ikerketa Proiektuan elkarriketak burutzerakoan, biktimarekiko enpatia handia izan behar zen, baina aldi berean, profesionaltasunaren objektibotasuna mantendu.

Kriminologoen daukaten ezagutza psikologiko, mediku zein legala kontuan izanda, elkarrizketak burutzeko profesional egokia da.

Francisco Etxeberria irakaslearen eta Tortura Ikerketa Proiektuaren zuzendariaren arabera, burututako giza eskubideen ikerketa mota hura prozesu judizial informal batena baino, Egiaren Batzorde baten parekoagoa dela dio. Ondorioz, azterketa zeharkakoa izaterakoan kriminologoen daukaten formazioa lagungarriagoa da dokumentu, testigantza zein adituen frogak aztertu behar diren heinean. Dokumentu hauen analisia egiteko formazio juridikoa ez ezik antropologia edo psikologia bezalako arloetan ere ezagutza izatea lagungarri da (5. eranskina). Arrazoi horrengatik, kriminologoen lan egokia burutu ahalko zuten Giza Eskubideen urraketan arloko ikerketetan.

Laura Pego ikertzaileak ere bere lankidearen ideia partekatzen du. Bere ustetan kriminologoa gertatutakoa azaltzeaz gain, eskubide urraketa pairatu duen biktimaren beharrak eta urraketa burutu duen delitugilearen tratamenduan ere laguntza eman dezake bere formakuntza diziplinantzari esker. Gainera, beharrezkoa da eskubide urraketan arloan lan egiten duten pertsonak enpatian trebeak izatea, delitu hauek daukaten izaeratik. Lauraren arabera, kriminologoen ezaugarri hori bete egiten dute, profesionaltasuna eta objektibotasuna galdu gabe.

Garrantzitsua da ere proiektuan parte hartzen duten beste ikasle batzuen iritzia isladatzea. Kasu honetan, Leyre Padilla, kriminologo batek giza eskubide urraketetan ikerketa sakonagoak burutu ahal dituela uste du, hauek duten arlo anitzen ezagutzak kontuan izanda. Formakuntza honi esker ere, kriminologo batek edozein motako txostenak ulertzeko gai izango da, eta hori lagungarria izan daiteke ikerketa lan talde batean. Leyreren iritziz, beraz, kriminologoaren lana ez da arlo batera mugatuko, baizik eta ikerketaren hainbat eremuetara zabaltzen dela.

Beraz, kriminologoak dituen ezagutzei esker eskubideen urraketan eremuan profesional baliagarria da. Edozein motako txostenak ulertzeko gai izango da; biktimarekin enpatikoa izango da, baina objektibotasuna galdu gabe; eta urraketaren zergatik eta kausak ulertzen lagunduko du teoria kriminologikoak aplikatuz, ondoren prebentzio eta esku-hartze programa egokiak proposatzeko eta eskubide urraketak etorkizunean ekiditen saiatzeko.

5. Ondorioak

Lanean zehar ikusi ahal izan den bezala, iluministek zeukaten torturaren abolizioaren ideia ez da bete. Gaur egun ere, noizean behin, herrialde batek arrazoiak aurkezten ditu pertsona talde batenganako trataera desberdina bultzatzeko. Arrazoi hauek herrialde horren kulturarenganako eraso edo mehatxuak izaten dira normalean, zeinak giza eskubideen murrizketak dakartzate. Estatuaren segurtasunaren edo hiritarren segurtasunaren izenean eskubideak murriztu egiten dira, eta segurtasun komuna mantentzearen ideia hau da gizartea berak kontrolatu behar duena, askatasunak ez murrizteko.

Beraz, torturaren prebentzioa egiteko edota, areago, tortura deusezteko lege eta eskubide soilak ez dira nahikoak, politika sozial egokiak ezartzea ere beharrezkoa da. Hirugarren atalean azaldu den bezala, torturatzailerak ez da jaiotzen, baizik eta gizarteak bere ohitura, kultura eta gatazkekin sortzen duen baliabidea dela. Tortura ideologiaren arteko gatazka dagoen gizarteetan sortzen den delitua da, gatazken teorien arabera, gizarte kohesioaren galera gertatzen denean eta laguna eta etsaiaren artean bereizten hasten denean sortzen dena. Ingurugiro hau ematerakoan indar gehiena daukan taldea ahularen gaineko indarkeria burutuko du haien ideologia suntsitzeko. Pentsamendu hau jarraituz sortzen da sistema publikoan torturaren delitua.

Jokabide hau azaltzeko etsaiaren zigor zuzenbidea ere aipatu daiteke. Jakobs autorearen arabera, zuzenbide mota hau gizartearentzako arriskutsua den pertsona zigortu egiten du delitua burutu baino lehen. Kontsideratu daiteke Espainiako estatuan ere zuzenbide mota hau aplikatu egiten dela delitu mota batzuen aurrean (terrorismoa edo delinkuentzia organizatuen aurrean adibidez), legeen bidez beste delituei ematen zaien bestelako trataera ematen baitzaie. Pentsaera hau ez da arriskugabea, lehen esan bezala, gizartearen segurtasunaren izenean tortura bezalako portaera larriak onartzera iritsi daitekeelako. Gainera etsaiaren irudia zehaztea zaila egiten da, eta definizio hau denboraren eta garai historikoaren arabera aldaketak izango lituzke, edozein pertsona etsaitzat hartzeko arriskua ekarriz.

Arazoa sortzen da etsaiaren zuzenbidea sistema penalean ez ezik, gizartearen pentsamenduan ere ezartzen denean. Gizartea da egoera hau kontrolatzeko boterea duen bakarra. Tortura prebenitzeko instrumentu garrantzitsuenak ez daude legeetan, baizik eta pertsona bakoitzak duen pentsatzeko moduan. Gizarteko taldeek, beste taldeekiko

tolerantzia lantzen baldin badute eta haien artean erlazionatzeko eta elkar bizitzeko moduak hobetzen baldin badituzte torturaren prebentzio egokia lortu ahalko zen. Arrazoi horrengatik ezin da etsaiaren irudia gizartearen kulturen barneratu, elkarbizitza demokratiko eta baketsua eramateko oztopoa handia izango zelako.

Hau kontuan izanda, interesgarria izango litzateke gizarteak torturaren erabilerari buruz daukan pertzepzioa eta iritzia aztertzen duen ikerketa bat burutzea. Elkano Erreal institutuan 2008. urteko apirilean nazioarteko terrorismoari buruzko pertzepzioaren azterketan torturari buruz hiritarrek zeukaten pentsamendua aztertu zuen. Atal horretan pertsonen torturaren erabileraren justifikazioari buruzko zein ideiarekin ados zeuden: tortura beti debekatuta egon behar da; edo torturaren erabilera batzuetan beharrezkoa izan daitekeela. Kasu honetan, laginaren %46 torturaren debekua edozein kasutan egotearen adierazpenarekin ados agertu ziren, baina %35a estatuek zenbait kasuetan tortura erabiltzearen legimititatearekin ados agertu ziren (Real Instituto Elkano, 2008). Ikusi daitekeen bezala ez dago alde handirik erantzunen artean, eta torturaren prebentzio egokia gertatu ahal izateko beharrezkoa izango zen torturaren alde agertzen den ehuneko horretan ikerketa sakonagoa burutzea.

Torturaren errealitateari dagokionez, Tortura Ikerketa Proiektuaren bidez ikusi ahal izan da gaur egungo gizartean tortura salaketak egoten jarraitzen direla. Ondorioz, ezinezkoa da baieztatzea Espainiar estatuan tortura existitzen ez denik. Ikusi ahal izan da garai historikoaren arabera torturaren presentzia altuagoa izan dela, eta pixkanaka jaiste ari dela nahiz eta, ikerketa amaitu gabe egoterakoan, baieztatu ezin daitekeenik. Torturaren inguruko salaketen gorakada ikusi daiteke 80. hamarkadara arte, eta ondoren jaitsi egiten da. Kontuan hartu beharra dago 2.3 atalean ikusi diren lege garrantzitsuenak garai horren ingurutik aurrera aplikatzen hasi zirela. Beraz, jaitsiera horren arrazoietako bat legeen aplikazioa izan daiteke. Baina ezin da alde batera utzi ezta ere gizarteak gero eta konfiantza gutxiago daukala sistema judizialean, eta ondorioz, kasu asko ez dira salatuko.

Hala ere, kontsideratu daiteke torturaren sofistikazioaren ondorioz eta tortura kasuak ikertzeko dauden zailtasunen ondorioz, azkenengo urteetan ikerketan agertu diren baino kasu gehiago egotea, ikerketa honen zifra beltza osatuz. Izan ere, torturaren desagerpena gertatzen ari dela dirudienean beste forma baten azpian berragertu egiten da, gizartearen gaixotasuna izango balitz bezala (Ottenhof, 1985, 391 or.).

Kriminologia giza eskubideen urraketen arloan beharrezkoa den zientzia bat da. Azken finean eskubide urraketa gehienak delituetatik sortzen dira eta delitu horiek

normalean estatuek burutzen dituzte. Beraz, kriminologia delitu arruntei aurre egiteko gaitasuna duen zientzia bat baldin bada, eskubide urraketak prebenitzeko ere ez dago kriminologia bezalako beste zientziarik (Arroyo Juárez, 2002, 481 or.). Gizartean kriminologian pentsatzen denean zuzenbidearekin edo poliziarekin lotzen da beti, baina lan honen hasieran adierazi den bezala, kriminologia zientzia interdisziplinaria da, eta hori kontuan izanda arlo legalean gain beste hainbat arloetan ere lagungarria izan daiteke.

Legeen bidez eskubide urraketan eta kasu honetan aztertu dugun torturaren erregulazioa eta zigorra ezarri daiteke, baina ikusi denaren arabera legeek ez dute prebentziorako eragin handirik torturaren eremuan. Lan osoan zehar esan den bezala tortura alderdi soziala dauka, eta alderdi hori erabili beharko da torturaren prebentzio egokia burutzeko. Torturaren zergati sozialak eta kulturalak aztertuz, kriminologoek prebentzio programa eraginkorrek proposatzeko gaitasuna izango zuten. Gizartea prebentzio lanean ez parte-hartzearen arrazoiak ezagutzen baldin badira hauen gainean ekintza egokiak burutu ahal izango ziren, eta modu honetan gizartearen aldeko prebentzio mekanismoa hobetu (Arroyo Juárez, 2002, 483 or.).

Beraz, kriminologiaren ekarpena giza eskubideen urraketan arloan, eta zehazki torturaren azterketan, hiru izan daitezke 4.2 atalean esandakoa laburbilduz: lehenik, delituaren azalpen zientifikoa, honen zergatiak eta aldagai nagusiak aztertuz. Honen bidez ikusi ahal izan da torturaren ikerketa ez dela alderdi legalean agortzen, baizik eta zergati sozialak eta kulturalak ere aztertu behar direla. Lanean behin eta berriz errepikatu den bezala torturatzailerak ez da jaiotzen, gizarteak sortu egiten du. Philip Zimbardo ikertzaile Stanfordeko espetxearen esperimentuaren bidez ondorioztatu zuen edozein pertsonari ideologia bat eta instituzioen laguntza emanda, egoera soilaren ondorioz teknika ez legalak erabiltzeko arriskua sortzen zela. Torturaren alderdi soziala ikusi daiteke esperimentu horren bidez (García-Pablos de Molina, 1989, 84 or.).

Bigarrenik, tortura delituaren prebentzio formala eta informalerako mekanismo egokiak bultzatzea. Behin torturaren zergatiak aztertuta hura prebenitzeko programa egokiak proposatzeko gai izango ziren kriminologoek. Zigorren bidez prebentzioa eman daitekeen arren, ez du eraginkortasun handirik, delitua burutu denean aplikatzen den neurria delako. Kriminologoaren ikerketaren bidez delitua burutu baino lehenago jardun ahal izango zen, torturaren sorrera bultzatzen duten faktore arriskutsuak neutralizatuz (García-Pablos de Molina, 1989, 91 or.).

Hirugarrenik, torturazalean eta biktimaren gaineko esku-hartze egokiak proposatzea izango zen kriminologoak giza eskubide urraketen inguruan egin ahalko zuen ekarpena. Torturazalea eta torturatuaren onurako programak sortzen laguntza eman ahal du kriminologoa baita ere. Azken finean delitua ez da soilik gertaera, biktima eta biktimarioa ere kontuan hartu behar dira delitu orokorraren prebentzio eraginkorra emateko. Atal honetan torturazalea birgizarteratzeko proposamenak egin ahalko zituzten kriminologoek, zigorren efikazia aztertuz. Beste aldetik, biktima laguntzeko programetan lan egin dezake baita ere, sufritu duten egitateak aztertuz eta horiek ulertzen laguntzen (García-Pablos de Molina, 1989, 94 or.).

Lan honi amaiera emateko ezinbestekoa da torturaren ikerketa kriminologikoak bultzatzea. Kriminologia zuzenbidearekin hain lotura estua izaterakoan lan kriminologiko gehienak torturaren alde juridikoan oinarritzen dira. Baina kriminologia zuzenbideaz gain beste arloetako ezagutzak ere badakartza, eta oso interesgarria eta beharrezkoa izango zen kriminologiaren ikuspuntutik torturaren delitua emateko zergatiak alderdi horietatik ere aztertzea. Kriminologiaren zientzia bere lekua hartu behar du gaur egungo mundu laboralean eta akademikoan. Hori lortzeko beharrezkoa izango da kriminologia zuzenbidearen subdiziplina bat delaren pentsamendua aldatzea eta diziplinanitzeko zientzia honek landu ditzazkeen arlo guztien ikuspuntutik ikertzen hastea.

6. Bibliografía

- Arroyo Juárez, M. (2002). Derechos humanos y criminología: un vínculo ignorado. *Economía, Sociedad y Territorio*, III(11), 471-487.
- Bakegintza eta bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia. (2013). *Proposamena: 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren plana*. Eusko Jaurlaritza.
- Batzar Nagusiaren 39/46 Ebazpena “Torturaren eta beste tratu edo zigor krudel, anker eta apalesgarrien kontrako hitzarmena” A/RES/39/46 (1984ko aberduaren 10a).
- Carmena, M., Mirena Landa, J., Múgica, R., & Uriarte, J. M. (2013). *Informe-base de vulneraciones de derechos humanos en el caso vasco (1960-2013)*. Vitoria: Gobierno Vasco.
- Caso Irlanda contra Reino Unido, TEDH\1978\2 (Tribunal Europeo de Derechos Humanos 18 de Enero de 1978).
- De la Cuesta Arzamendi, J. L. (1998). Torturas y otros atentados contra la integridad moral. *Estudios Penales y Criminológicos*, XXI(113), 40-116.
- Errege Dekretua, 1882ko irailaren 14koa, zeinaren bidez Prozedura Kriminalaren Legea onartu egiten den. Estatuko Txosten Ofiziala, 1882ko irailaren 17a, 260 Zk.
- Eskubide politiko eta sozialen Nazioarteko Ituna*, Nueva York, 1966ko abenduaren 16a, Nazio Batuen hitzarmen bilduma, 999 libk., 14668 Zk., 171 or.
- Espainiar Konstituzioa (BOE 311 Zk., 1978ko abenduaren 29a).
- Etxeberria, F., Martín-Beristain, C., Morentin, B., & Pego, L. (2014). *Proyecto investigación tortura: Informe preliminar sobre diseño y primeros pasos del estudio sobre la tortura*. IVAC/KREI.
- Foucault, M. (1988). *Vigilar y castigar: nacimiento de la prisión*. Madrid: Siglo XXI.
- García-Pablos de Molina, A. (1989). La aportación de la Criminología. *Eguzkilore*(3), 79-95.
- García-Pablos de Molina, A. (2009). *Tratado de criminología*. Valencia: Tirant lo Blanch.
- García-Pablos de Molina, A. (2013). *Criminología: una introducción a sus fundamentos teóricos*. Valencia: Tirant lo Blanch.
- Garrido, V., Stangeland, P., & Redondo, S. (2006). *Principios de criminología*. Valencia: Tirant lo Blanch.
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Ebazpena 217 A [III] (Nazio Batuen Batzar Nagusia, 1948ko abenduaren 10a).

- Giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen babeserako Europako hitzarmena*, Roma, 1950eko azaroaren 4a.
- Gobierno de España. (24 de Enero de 1978). Boletín Oficial de las Cortes. (52). Madrid, España.
- Grima Lizandra, V. (1998). *Los delitos de tortura y de tratos degradantes por funcionarios públicos*. Valencia.
- Gudín Rodríguez-Magariños, F. (2009). *El estado de derecho frente a la tortura: Luces y sombras en la lucha jurídica por la dignidad del hombre*. Valencia: Tirant Lo Blanch.
- Las siete partidas*. (1988). Valladolid: Lex Nova.
- Lege Organikoa 10/1995, azaroaren 23koa, Zigor Kodea. *Estatuaren Txosten Ofiziala*, 1995eko azaroaren 24, 281, 33987 or.
- Morenilla Rodríguez, J. M. (1988). El convenio Europeo para la prevención de la tortura y de penas o tratos inhumanos o degradantes. *Boletín de Información. Ministerio de Justicia e Interior*(1511), 5244-5270.
- Morentin, B., Landa, J. M., & Urmeneta, X. (2014). Detención incomunicada en el País Vasco. Marco jurídico y antecedentes de esta investigación. En O. Barrenetxea Larrondo, I. Markez Alonso, B. Morentin Campillo, G. Lopez Neyra, O. Barrios Salinas, & A. Krakenberger Larsson, *Incomunicación y tortura: Análisis estructurado en base al Protocolo de Estambul* (págs. 26-36). Lankopi, S.A. .
- Nazio Batuak, Batzar Nagusia “Tortura eta beste tratu edo zigor krudel, anker eta apalesgarrietatik pertsona guztiak babesteari buruzko deklarazioa” A/RES/3452 [XXX] (1975eko abenduaren 9a).
- Ottenhof, R. (1985). Reflexiones sobre la tortura. En A. Beristain Ipiña, & J. L. De la Cuesta Arzamendi, *Los derechos humanos ante la criminología y el derecho penal* (págs. 389-400). Donostia: Instituto Vasco de Criminología.
- Pérez Machío, A. I. (2009). La tortura y los tratos inhumanos y degradantes como consecuencia de algunas prácticas de lucha contra el terrorismo. En J. L. De la Cuesta, & I. Muñagorri, *Aplicación de la normativa antiterrorista* (págs. 203-218). Donostia: IVAC/KREI.
- Peters, E. (1985). *La Tortura*. Madrid: Alianza Editorial.
- Presoen tratamendurako gutxieneko arauak, ebazpena 663 CI [XXIV] (Nazio Batuak 1957ko uztailearen 31a).
- Punto y Hora de Euskal Herria. (23 al 30 de Octubre de 1986). Transcripción del galoso arrependido a la televisión belga. *Punto y Hora de Euskal Herria*(49), 20-25.

- Real Instituto Elcano. (Mayo de 2008). Barómetro del Real Instituto Elcano. 17. Madrid. Recuperado el Abril de 2015
- RJ 2009/5742 (Tribunal superior 25 de Septiembre de 2009).
- Rodriguez Mesa, M. J. (2000). *Torturas y otros delitos contra la integridad moral cometidos por funcionarios por funcionarios públicos*. Granada: Comares.
- Savater, F., & Martínez-Fresneda, G. (1982). *Teoría y presencia de la tortura en España*. Barcelona: Anagrama.
- Torturaren eta beste tratu edo zigor krudel, anker eta apalesgarrien prebentziorako europar hitzarmena*, Estrasburgo, 1987ko azaroaren 26a.
- Zúñiga Rodríguez, L. (2007). El tipo penal de tortura en la legislación española, a la luz de la jurisprudencia nacional e internacional. En F. Pérez Álvarez, M. Á. Núñez Paz, & I. García Alfaraz, *Universitas vitae: homenaje a Ruperto Núñez Barbero* (págs. 875-912). Salamanca: Universidad de Salamanca.

7. Eranskinak

